

EUZKO JAURLARITZAREN FUNTSA (1936-1979): HISTORIA ETA EDUKIA

Leyre Arrieta Alberdi



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<<http://euskadi.net/ejgvbiblioteca>>

Argitalpena: 1.a, 2011ko urtarrila

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Leyre Arrieta Alberdi

Itzulpena: Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IVAP)

Diseinua eta maketazioa: EkipoPO

ISBN: 978-84-457-3137-6

Lege-gordailua: VI 242-2010

Inprimatzailea: Gráficas Santamaría, S.A.

AURKIBIDEA

1. HASIERAKOA 7

2. FUNTSAREN HISTORIA 11

- 2.1. *Euzko Jaurlaritza eta haren ordezkariak* 13
 - 2.1.1. **Bartzelonako Ordezkaritza (geroago, Euzko Jaurlaritzaren egoitza izan zen)** 16
 - 2.1.2. **Parisko Ordezkaritza** 17
 - 2.1.3. **Baionako Ordezkaritza** 19
 - 2.1.4. **Londresko Ordezkaritza** 19
 - 2.1.5. **New Yorkeko Ordezkaritza** 20
 - 2.1.6. **Buenos Airesko Ordezkaritza** 21
- 2.2. *Hainbat funts, hainbat istorio* 21
 - 2.2.1. **1940 baino lehenagoko dokumentuak** 22
 - Thorpehall edo Dieleman kasua* 26
 - 2.2.2. **1940tik aurrerako dokumentuak** 29
 - 2.2.3. **Dokumentu hutsuneak** 33
- 2.3. *Funtsa eta EAJ* 34

3. FUNTSAREN ANTOLAMENDUA, DOKUMENTU MOTAK ETA EDUKIA 39

- 3.1. *Antolatze irizpideak* 41
- 3.2. *Dokumentu motak* 42
- 3.3. *Funtsaren edukia* 43
 - 3.3.1. **Sailez sail** 44

3.3.1.1. Lehendakaritza	44
3.3.1.2. Defentsa Saila	52
3.3.1.3. Gizarte Laguntza Saila	54
3.3.1.4. Ogasun Saila	54
3.3.1.5. Merkataritza eta Hornikuntza Saila	56
3.3.1.6. Industria, Marina eta Arrantza Saila	56
3.3.1.7. Gobernazio Saila	57
3.3.1.8. Kultura Saila	58
3.3.1.9. Nekazaritza Saila	58
3.3.1.10. Justizia Saila	59
3.3.1.11. Osasun Saila	59
3.3.1.12. Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio Saila	59
3.3.2. Bestelako funts osagarriak	60

4. ONDORIOAK 65

5. BIBLIOGRAFIA 71

ERANSKINA. EUZKO JAURLARITZAREN ARTXIBO HISTORIKOAREN FUNTSAREN EGITURA 75

1. HASIERAKOA


Honako orrialde hauetan, Euzko Jaurlaritzaren Funtsaren historiari eta edukiari buruz egindako azterlanaren emaitzen berri jakingo du irakurleak. 2009. urtea arte Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian, Artean (Bizkaia), egon da gordeta funtsa, baina Irargira eraman dute orain, Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Ondarearen Zentrora, Bergarara¹.

Funtsaren historia lantzen duen atalean, funtsaren beraren bilakaera bahetu eta azalduko dugu. Horretarako, gainetik bada ere, kontakizun modukoa egingo dugu argitzeko Euzko Jaurlaritzak sortutako dokumentuak zergatik sakabanatu ziren, nondik sortu eta jasotakoak diren eta zergatik dagoen osatuta hain ibilbide historiko aldenduak dituzten agirimultzoetz. Horren ildotik, bigarren atalean, hobeki azaldu eta ulertuko dugu funtsaren zati bakoitzaren historia, eta gaur egun dauden dokumentu hutsuneak zer dela-eta sortu diren. Hirugarren atalean, hainbat eta hainbat urtez Euzko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) agiriok gordetzen eta zaintzen egindako lan eskergaz jardungo gara.

Bigarren zatian Funtsa antolatzeke erabilitako irizpideak azalduko ditugu, zer motatako agiriak dituen eta, nagusiki, funtsaren edukia zertan den. Zer-nolako dokumentuak diren, zertaz diren, nola kontserbatuta dauden, eta kronologikoki non kokatzen diren argituko dugu; 1936tik, Euzko Jaurlaritza sortu zenetik, 1979 arte pilatutakoetatik, sail bakoitzari dagozkion artxiboetan murgilduta.

Azkenik, Euzko Jaurlaritzaren Funtsa aztertzeak piztu dizkigun hausnarketak eta ondorioak ekarriko ditugu argitara.

1 Hain justu, azterlan honetan Funts horretatik aipatzen diren agiriak Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren inbentarioko erreferentziak daramatzate oraindik.



2. FUNTSAREN HISTORIA

Euzko Jaurlaritzaren Funtsa osatzen duten dokumentuek gorabehera handiak eta askotarikoak izan dituzte. Hainbat dokumentu multzo ditugu, eta, sortu zirenetik Euskal Abertzaletasunaren Agiritegira eraman zituzten arte, bakoitzak ibilbide desberdin bat egin du; hau da, hainbat ibilbide historiko ditugu. Gainera, toki desberdinetan sortutako artxiboak dira eta bakoitza Euzko Jaurlaritzaren mendeko erakunde desberdin batek egin du. Jarraian, funts horien historia azaltzeari ekin baino lehen, erakunde horien berri emango dugu, gainera bada ere.

2.1. Euzko Jaurlaritza eta haren ordezkariak

II. Errepublikaren garaia politikoki oso bizia izan zen Euskal Herrirako eta Espainiako Estatu osorako. Tentsio handiko uneak izan ziren euskal indar-politikoek eta gobernu errepublikarren artean, eta tentsio horrek trabak jarri zizkion Errepublika aldarrikatu eta gero abiarazi zen estatutua sortzeko prozesuari. Garai hartan, hainbat Estatutu proiektu egin ziren, baina 1936an, Gerra Zibila hasia zela, onartu zuten Espainiako Gorteeek Euskadiko lehen Autonomia Estatutua; horren ondoren sortu zen lehen Euzko Jaurlaritza². Gerraren ondorioz sortutako egoera dela-eta, gobernu horrek egiazko gobernu bat balitz bezala funtzionatu zuen, eta estatutuaren testuan eta konstituzioan ageri ez ziren eskumenak hartu behar izan zituen.

2 Lehen Euzko Jaurlaritza honelaxe zegoen eratuta: EAJko lau sailburu (Jose Antonio Agirre, Lehendakaritza eta Defentsa; Jesus Maria Leizaola, Justizia eta Kultura; Eliodoro de la Torre, Ogasuna; eta Telesforo Monzon, Gobernazioa); PSOEko hiru (Santiago Aznar, Industria; Juan Gracia, Gizarte Laguntza; eta Juan de los Toyos, Lana); EAE-ANVko bat (Gonzalo Nardiz, Nekazaritza); Izquierda Republicanako bat (Ramon Maria Aldasoro, Merkataritza); Unión Republicanako bat (Alfredo Espinosa, Osasuna) eta Alderdi Komunistako bat (Juan Astigarrabia, Herri-lanak).

1937ko urrian, Euzko Jaurlaritzak Bartzelonara eraman behar izan zuten, eta 1939ko urtarrila arte egon zen han. Hil horren 29an, armada frankista Kataluniako hiriburuan sartu zen, eta, otsailaren 5ean, Jose Antonio Agirre lehendakariak muga igaro behar izan zuen Lluís Companys *presidentarekin* batera; Parisen kokatu zen. Beraz, sortu zenetik Francoren diktadura amaitu arte, lau egoitza nagusi izan zituen Euzko Jaurlaritzak: Bilbo, Bartzelona, Paris eta New York.

Gerra Zibila bukatu eta handik gutxira, Bigarren Mundu Gerra hasi zen eta naziek Frantzia okupatu eta Paris hartu zuten. Hori dela-eta, Euzko Jaurlaritzako kideak, eta oro har, errefuxiatuak eta agintari politikoak asko sakabanatu ziren. Beharrezkoa zen harremana izaten jarraitzea eta mundu osoan zehar sakabanatutako euskal herritar guztiekiko erlazio-sare bat izatea, eta, horretarako, eta Gerra Zibilean hartutako autonomia erabilia eta teorikoki berari ez zegozkion eskumenak baliatuta (esaterako, kanpo-harremanen eskumena), Euzko Jaurlaritzak hainbat ordezkari jarri zituen abian Estatu eta Europako zein Amerikako hainbat lekutan. Ordezkaritza horiek izaera instituzionaleko (eta ez alderdi batenak) lehenbiziko ordezkari izan ziren, eta, Bigarren Mundu Gerra hasi eta gero desegin beharrean, gogotsu eta dinamismo handiz jarraitu zuten lanean. Argi dago ez zirela Estatu independente bateko enbaxadak, eta, beraz, ez zuten ohiko trataera diplomatikoa jaso, baina, politikoki, onartu egin ziren.

Hainbat ordezkari mota izan ziren. Batzuk ordezkari politikoetatik jo daitezke. Hala nola Pariskoa, New Yorkekoa, Buenos Aireskoa eta Londreskoa. Bigarren multzoan, laguntza emateko ordezkariak daude, hala nola Baionakoa. Han, batez ere laguntza-lanez eta erbesteratutakoen babesaz arduratzen ziren. Hirugarren multzoan, ordezkari mistoak ditugu, Bartzelonakoa, esate baterako.

Bartzelonakoaz gain, Estatuan, Madrilen, Valentzian eta Alacanten ere izan ziren ordezkariak. European, Pariskoa, Londreskoa eta Brusela-Anbereskoa izan ziren lehen ordezkariak. Bordelen eta Baionan ere izan ziren ordezkariak. Atlantikoaren beste aldean, New Yorken, Buenos Airesen, Mexikon, Santo Domingon, Caracasen eta Habanan jarri ziren ordezkariak. Geroago, Hegoamerikako beste hiriburu batzuetara ere hedatu zen ordezkari-tza-sarea.

Zentro horietarako baliabide ekonomikoak oso txikiak ziren, eta, kasu askotan, gobernuaren diru-iturriengatik baino, kanpoko laguntzengatik iraun zuten. Haien antolamenduak eta egiturak ez zioten eredu jakin bati jarraitu, baina hori ez da batere harrigarria, kontuan hartzen bada Jaurlaritzak oso egoera zaila zuela eta harrera herrialde bakoitzean ere egoera desberdina zegoela. Dena den, ordezkari-tza-ereduaren mota bat bazegoen; kasu guztietan agertu zen oinarritzko hezurdura bat. Ordezkari-tza guztiek Jaurlaritzak izendatutako ordezkari bat zuten buru, eta honako hauek ziren haren lan nagusiak: jarraitu beharreko estrategia diseinatzea eta harreman eta erlazio politiko-diplomatikoetan Euzko Jaurlaritzako ordezkari-lanak egitea. Idazkari nagusia ere beti agertzen zen egitura instituzional horretan, eta eguneroko lanak koordinatzeaz eta ordezkaria kanpoan zegoenean hura ordezkatzear arduratzen zen. Oro har, ordezkari-tzaren egitura, legelari bat, kazetari bat, diruzain bat eta hainbat kide izaten ziren. Beti saiatu izan ziren kideen joera politikoetan oreka egon zedin, baina egia da gehienak jeltzaleak izan zirela.

Ordezkari horietatik guztietatik, aztertzen ari garen funtsarekin nolabaiteko zerikusia duten horiek hartuko ditugu aintzat.

2.1.1. *Bartzelonako Ordezkaritza (geroago, Euzko Jaurlaritzaren egoitza izan zen)*

1931n, *Euzko-Batzokija* deituriko bat kokatu zen Bartzelonan. Gerra Zibila hasi eta gero, Kataluniako Euskal Milizien Batzordea sortu zen hiri hartan, eta lurralde hartan bizi edo errefuxiatu ziren hainbat euskal herritarrek osatu zuten. Geroxeago, eta euskal errefuxiatuei laguntza eta arreta emateko asmoz, Bartzelonako Euskal Idazkaritza sortu zen, eta Kataluniako entitate eta erakundeen babesu zuen. Ordezkaritza bera, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Ordezkaritza Nagusia Catalunyan-Delegación General de Euzkadi en Cataluña-Delegació General d'Euzkadi a Catalunya izenekoa, 1936ko azaroan sortu zen. Haren lehenengo egoitza Valencia kalean zegoen; geroago, Elkano jauregian izan zen, Francesc Pi i Margall (aurretik Gracia) pasealekuan.

Nabarmenezkoa da Ricard Altaba i Planuc-ek, nazionalista katalan ezkertiarrek, bete zuela bolada batez idazkari nagusiaren kargua, Manuel Irujok hala eskatuta. Idazkaritza Nagusiaz gain, beste hiru atal hauek ere betetzen zuten ordezkaritza katalan horren egitura: Gizarte-laguntza, Kultura eta Propaganda Batzordea eta Ekonomia eta Finantzak. 1937ko apirilean, Luis Areitioaurtena Arizpe EAE-ANVko (Eusko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca) buruzagia izendatu zuten Bartzelonako gobernu-ordezkaria.

Poliki-poliki, Kataluniako Ordezkaritza gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan zen, 1937an Euzko Jaurlaritzaren beraren egoitza bihurtu zen arte. Hala, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Ordezkaritza Nagusia Catalunyan izandakoari Euzkadiko Jaurlaritza Autonomoa-Kataluniako Ordezkaritza deitu zitzaion. Areitioaurtenak eta Altabak beren karguak betetzen jarraitu zuten eta ordezkariorde kargu berria Jose Aretxabaletak hartu zuen. 1937ko urrian, Agirre lehendakariak Bartzelonan hartu zuen bizilekua,

eta, 1938ko urtarrilean, Julio Jauregi Kataluniako Euzko Jaurlaritzako Lehendakariitzako idazkari nagusia izendatu zuten³.

2.1.2. Parisko Ordezkaritza

Ordezkaritza horren irekiera ofiziala 1936ko azaroan izan zen. Rafael Pikabea Gipuzkoako diputatua izendatu zuten ordezkari. Felipe Urkola, Eugene Goienetxe, Jose Luis Rodríguez, Migel Olaskoaga, Agustin Alberro, J. R. Larrouyet, Jose Maria Izaurieta eta, geroago, Francisco Javier Landaburu —Euzko Jaurlaritzaren nazioarteko harremanen ordezkari nagusia— izan zituen laguntzaile. Horietako askok *Euzko Deyarekin* edo Euskadiko prentsa nazionalistarekin zuten lotura. Ordezkaritza horretatik, Frantziako agintariekin eta, bereziki, Kanpo Auzietarako Ministerioarekin erlazioak sortzen saiatu ziren, baita Parisen zeuden beste herrialde batzuetako ordezkariekin harremanak izaten ere. Halaber, euskal auziaren eta Errepublikaren aldeko Frantziako sektore politiko eta sozialen babesa eta laguntza lortzen saiatu ziren⁴. Ordezkaritzak euskal errefuxiatu eta erbesteratuen laguntza ere koordinatu zuen, eta propaganda-lan handia eta bizia

3 Bartzelonako Ordezkaritza hobeki ezagutzeko, honako lan hauetara jo daitezke: «Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Ordezkaritza Nagusia Catalunyan / Delegació General d'Euzkadi a Catalunya / Delegación General de Euzkadi en Cataluña», Barcelona, 1937; eta ALTABA PLANUC, Ricard, *Vuit mesos a la Delegació del Govern d'Euscadi, a Catalunya*, Joan Santamariaren hitzaurrea, Comissariat de Propaganda de la Generalitat de Catalunya, Barcelona, [s.a.].

4 Urte horietan, *Jeune République*, demokrazia kristauaren alderdi ezkertiarra, Marc Sangnier diputatu ohiak sortutakoa; *Le Foyer de la Paix*, Sangnier bera buru zuen elkarte; Francisque Gayk zuzendutako *L'Aube* egunkaria (hainbat lagun ospetsu zituen laguntzaile, hala nola Georges Bidault edo Luigi Sturzo, azken hori *Partito Popolare Italiano* kristau-demokrataren sortzailea); *Parti Démocrate Populaire* (PDP), joera kristau-demokratiko alderdia, 1924an sortua. Halaber, hainbat intelektualen eta kulturaren arloko pertsona ospetsuren babesa izan zuten: François Mauriac, Jacques Maritain, Georges Bernanos eta Paul Vignaux.

egin zuen; horretarako, *Euzko Deya-La voz de Euskadi-La voix des Basques*⁵ aldizkaria erabili zuen batez ere.

Parisko ordezkariaren lanik garrantzitsuenen LIAB (*Ligue Internationale des Amis des Basques*, Euskaldunen lagunena Nazioarteko Elkarte) sortzea izan zen.

LIABen hasierako helburuak, funtsean, humanitarioak (euskal erbesteratuei laguntzeko toki-batzordeak sortzea, lan-poltsak antolatzea) eta elkarlanerakoak ziren, Euskal Herriko arazo berri emateko (informazio bulego bat sortzea, erakundeak eta euskal kulturaren ezaugarriak sustatzea...). Baina 1939an, Frantziako Gobernuak Francoren Espainia ontzat eman zuenetik, Euzko Jaurlaritzak agintari frankistek bere ondasunak eskatzeko arriskua zuen, eta, beraz, LIAB gordeleku perfektu bihurtu zen laguntza-elkarteetarako, eta, erbesteratuen jarduera nazionalistarako, euskarri legala izan zen. Pierre Dumas Propagandako ordezkariak —abertzaleekin zeharo bat zetorren kazetari frantziarrak— egindako lanari esker, elkarteak lan handia egin zuen, eta, ospe handiko kideak zituenenez, Frantziako Administrazioan eragin zuzena lortzeko tresna bihurtu zen zenbait urtez.

1937ko udan, Agirre lehendakaria Frantziara erbesteratu zenean, Euzko Jaurlaritzak Parisen kokatu zen extraofizialki, eta, alemanen inbasioa gertatu arte, euskal erbesteratuen laguntzagune bilakatu zen. Bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero eta Agirre berriz ere European zegoela, Paris izan zen, ostera ere, euskal erbesteratuen hiriburua. Hortik abiatuta, harreman-sare oso bat sortu zen, eta, horretan, Frantziako intelektual eta politikari askok eta hainbat erakunde europeistak eta federalistak hartzen zuten parte.

5 SEBASTIÁN, Lorenzo; MENDAZA HERNÁNDEZ, Ana Gemma, «Euzko Deya, La voz de Euskadi/La Voix des Basques. Órgano de prensa del Gobierno Vasco en Francia, noviembre de 1936 a mayo de 1940», in *Españoles en Francia 1936-1946. Coloquio internacional*, Universidad de Salamanca, 1991, 345.-456. or.

2.1.3. Baionako Ordezkaritza

1936ko abenduan ireki zen Baionan bulego ofizial bat, eta Euzko Jaurlaritzarekiko lotura-lanak egin zituen gerra amaitu zen arte. Marechal Foch etorbideko 8.ean zegoen bulego hura eta Jose Manuel Oruezabalak zuzentzen zuen; geroago, ordezkaritza bihurtu zen. Santiago Zarranz eta Jose eta Juan Jose Mitxelena informazio- eta prentsa-bulegoez arduratu ziren. 1937an, Javier Gortazar ordezkaritza izendatu zuten; Jose Manuel Oruezabala, ordezkariorde, eta Juan Manuel Epaltzak idazkari-lanak egin zituen. 1940an alemanen inbasioarengatik behin-behinean itxi arte, Baionako Ordezkaritza laguntzagune garrantzitsua izan zen euskal erbesteratu eta errefuxiatuentzat. 1944ko udan lurraldea askatu eta gero, ordezkaritza birsortu egin zen eta Gortazarren zuzendaritzapean jarraitu zuen 1979ra arte.

2.1.4. Londresko Ordezkaritza

30eko hamarkadan eta 40ko hamarkadaren hasieran, Britainia Handia eragile nabaria zen Europako politika-esparruan. Jose Ignazio Lizaso izan zen hango ordezkaritzako burua eta Angel Gondrak lagundu zion idazkari nagusi modura. Besteak beste, Ramon de la Sota Mac Mahon (New Yorkera beste ordezkaritza bat sortzera joan arte) eta Marino de Ganboa izan zituzten bidelagun. 1938. urtearen bukaeran, Manuel Irujo sartu zen talde horretan eta ardura politiko nagusiak hartu zituen. Alemanek Frantzia hartu eta gero, ordezkaritza horrek garrantzi handiagoa hartu zuen. Izan ere, 1940ko uztailean, Euskal Kontseilu Nazionala sortu zen, eta, 1942an desegin zen arte, euskal erbesteratuak koordinatu eta zuzendu zituen.

Ordezkaritza horren lan nagusia harremanak sortzea izan zen, hala nola *Foreign Officers*ekiko harremanak, erbesteratutako errepublikazaleei laguntzen zieten elkarteekikoak eta hainbat

joeratako politikariekikoak; halaber, propaganda-lanak egiten zituen⁶. Londresko ordezkari-tza Pariskoarekin eta New Yorkekoarekin batera aritu zen lanean, oso estu.

2.1.5. New Yorkeko Ordezkaritza

New Yorkeko Ordezkaritza 1938ko abuztuan sortu zen, Ipar Amerikako agintarien artean zein Ameriketako Estatu Batuetara emigratutako euskaldunen artean propaganda-lanari ekiteko asmoz. Bigarren Mundu Gerra laster has zitekeela ikusita behin-behineko ordezkari-tza izateko asmoz jaio zena behin betiko zentro bihurtu zen. Anton Iralak, Ramon de la Sota Mac Mahonek, Manuel de la Sota Aburtok, Juan Aranburuk, Eustasio Arritolak eta Jose Urrestik osatu zuten hasierako taldea. Agirre lehendakaria 1941ean New Yorken kokatu zenetik, ordezkari-tza hori euskal erbesteratuen gune politiko nagusi bihurtu zen.

Honako hauek izan ziren New Yorkeko Ordezkaritzaren helburu nagusiak: Espainiako Errepublikako ordezkari-ekin harremanak izatea, laguntza lortzeko euskal-estatubatuarrekin harremanak sustatzea, Ameriketako Estatu Batuetako talde katoliko eta politikoe-ekiko harremanak hobetzea (Estatu Departamentuarekin izandako erlazioak dira aipagarriak), zentro horretatik beste herrialdeekin erlazio diplomatikoak sortzea, euskal herritar-ak hartzen zituzten Ameriketako Estatu Batuetako estatu-ekin harremanak bultzatzea eta propaganda-lanak egitea (liburuak eta liburuxkak argitaratzea, kirol- eta kultura-jarduerak).

⁶ Gizarte britainiarrean propaganda egiteko, Londresko Ordezkaritzak harreman publiko-etarako enpresa bat kontratatu zuen: E. M. Wright. Enpresa horren bidez, Erresuma Batuko Parlamentuko hainbat diputatu-ekin (batez ere kontserbadoreekin) jarri ziren harremanetan, eta, eskutitzez eta toki-prentsako artikulue- gain, ingelesezko liburuxkak eta *Euzko Deya The voice of de Basques*aren ale batzuk argitaratu ziren.

2.1.6. Buenos Airesko Ordezkaritza

Buenos Airesko Ordezkaritza 1938ko azaroan sortu zen eta garrantzitsuena izan zen Latinoamerikan kokatutako en artean. New Yorkeko Ordezkaritza bezala, behin-behinekoa zen eta propaganda-lana egiteko asmoa zuen. Ramon Maria Aldasorok, Euzko Jaurlaritzako kideak eta Izquierda Republicanako buruzagiak, zuzendu zuen, eta Santiago Cunchillos, Isaak Lopez Mendizabal eta Pablo Artxanko izan zituen laguntzaile. Euskal-argentinarren taldearen zati baten laguntza izan zuten, baina Errepublikaren kontrako sektorea eta politiko kontserbadoreen sektoreak aurka izan zituzten. Ordezkaritza horrek inguruko ordezkaritzak koordinatu zituen eta, gainera, *Euzko Deya* argitaratu zuen aldian-aldian. *La voz de los vascos en América* erbestealdiko argitalpen garrantzitsuena izatera iritsi zen. Buenos Airesko Ordezkaritzako lorpenik handiena Euskal Immigrazioaren aldeko Batzordea izan zen, eta, talde horren lanari esker, Argentinako Gobernuak hainbat dekretu sortu zituen euskal herritarrek herrialde horretara joatea errazago izan zezaten.

2.2. Hainbat funts, hainbat istorio

Euzko Jaurlaritzak sortu zenetik izandako gorabehera historikoen ondorioz eta Espainiako gerrak eta gero alemanek Frantzia okupatu izanak ekarri zuten zatikatzearen ondorioz, erabakitze-guneak biderkatu ziren, eta euskal agintariek koordinazio handia behar izan zuten. Beraz, Euzko Jaurlaritzako dokumentu guztiak sakabanatuta eta atal askotan banatuta bukatu zuten. Hala, Euzko Jaurlaritzaren Funtsa funts bakarra dela ahaztu gabe, esan daiteke hainbat funts daudela, eta, horrenbestez, hura osatzen duten dokumentuek ibilbide desberdinak egin dituztela. Are gehiago, askotan, Euzko Jaurlaritza osatzen duten ataletako eta zuzendaritzetako dokumentuak ez ziren une berean bidali jatorritik beren norakora, eta, batzuetan, gainera, beste sail

batzuetako⁷ dokumentuekin batera agertzen ziren; beraz, espediente horiek helmuga desberdina izan zuten. Hori dela-eta, sail batzuetan, ia dokumentu guztiak gorde dira, baina, beste batzuetan, berriz, ez dago ia dokumenturik edo bakarrik dokumentu multzo batzuk gorde dira. Bereziki nabarmentzekoa da, gero sakonago ikusiko dugun bezala, gordetako dokumentu gehienak, Gizarte Laguntzakoak izan ezik, EAJko sailburuen esku zeuden sailtakoak direla.

Halaber, funts horiek behin eta berriz lekualdatu zirenez eta abiapuntuetatik helmugetara iristeko inguruabar historiko zailak (konfiskatzeak, bahiketak...) igaro behar izan zituztenez, zaila da dokumentu sailtako erregistro osoak zehazki berregitea eta osatzea.

Azkenean Arteara iritsi ziren dokumentuak eta gaur egun Euzko Jaurlaritzaren Funtsa izenekoak osatzen dutenak bi taldetan banatu daitezke: 1940 baino lehenagoko funtsak (naziek urte horretan inbaditu baitzuten Frantzia) eta hortik aurrerakoak.

2.2.1. 1940 baino lehenagoko dokumentuak

1940 baino lehenagoko dokumentu gehienak Bilbon sortuak dira, 1936an Euzko Jaurlaritza sortu zenetik aurrera eta Bilbo erori eta Euzko Jaurlaritza 1937ko urrian Bartzelonan kokatu arte. Dokumentu horietako gehienak Lehendakaritza, Defentsa eta Ogasun sailtakoak dira, baina horrek ez du esan nahi beste sailetatik datorren dokumenturik ez dagoenik; baina horien kopurua askoz txikiagoa da.

1937ko maiatzean, armada frankista Bilbon sartu baino zenbait aste lehenago, Euzko Jaurlaritzako sailtako

7 Esaterako, Nekazaritza Saileko dokumentu batzuk Ogasun Sailekoak balira bezala ebakuatu ziren. Gonzalo Nardizek Francisco Altunari idatzitako eskutitza, Paris, 1937/11/25, AHNV, GE 444-4.

arduradunak hasiak ziren beren dokumentu-funtsak antolatzen, beste leku batzuetara bidaltzeko gordeko zirela bermatzeko asmoz. Bidali ezin izan ziren dokumentuak (denbora faltarengatik, arazo burokratikoengatik...) suntsitu egin ziren, frankistek ez atzemateko, edo armada nazionalak konfiskatu zituen. Azken dokumentu horiek Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroan (lehen Espainiako Gerra Zibilaren Artxibo Orokorra), Salamancan, daude gaur egun.

Garaiz paketatu eta bidali ahal izan ziren dokumentuak Baionara, Bartzelonara, Herbehereetara eta Parisera (Baionan, Bartzelonan edo Santanderren barrena) joan ziren. Gehienak Lehendakaritzakoak, Defentsakoak edo Ogasunekoak ziren; horietako batzuk beren helmugara iritsi ziren eta beste batzuk ez. Adibidez, Lehendakaritzako eta Defentsako zenbait dokumentu ezin izan ziren ebakuatu, hainbat arrazoi direla medio. Bestalde, Mobilizatutako Defentsa Industrietako bulegoek esan zuten dokumentuak paketzeko agindua denbora-tarte txikiarekin jaso zutela oso, eta, beraz, Bilbon gelditu ziren dokumentu horiek; eta, bestalde, beste dokumentu guztiak (32 kaxa) ezin izan ziren Santanderren ontziratu, Santander, Palentzia eta Burgos probintzietan⁸ ez zutelako Errepublikako ordezkariaren baimen idatzia lortu.

8 Administrazio-zuzendari nagusiak Euzko Jaurlaritzako Lehendakaritzara bidalitako txostena, Baiona, 1937/09/03, AHNV, GE 178-21; Enrique Dueñasek (Gaitze orokorra eta gerra-pentsioak azpiataletako burua) Defentsa Saileko Zuzendaritza Nagusira bidalitako txostena Baiona, 1937/09/03, AHNV, GE 66-21; Txosten horretan, Dueñas kexu agertzen zen Santanderko Errepublikaren Gobernuo Ordezkaritzako Idazkaritzaren pasibotasunarengatik, «hori dela-eta, Milizien Gaitze Orokorreko zerbitzuetako dokumentu estimatuak eta baliotsuak galdu dira, honako informazio hauekin: batailoien izen-zerrendak, gerra-unitate eta -zerbitzuak, gerran hildakoen eta gerra-elbarrituen eta haien oinordekoen pentsioak eta kalte-ordainak emateko hasitako espediente guztiak, zerbitzu horietako taula estatistikoak eta egunen batean beharko diren fitxak eta materialak, Euzko Jaurlaritza Errepublikako Gobernuari, administrazio egokiaren arauari jarraituz, bere antolatzearen berri eman behar dion egunean beharko direnak».

Bilbotik Herbehereetara joan ziren dokumentuen kasua berezia izan zen, urte askotan zain egon eta gero 90eko hamarkadaren bukaeran Euskadira itzuli zirelako. Thorpehall edo Dieleman kasua izenekoa da hori, eta, geroxeago aztertuko dugu sakonago, arreta berezia behar duelako.

Beste dokumentuen historiarekin jarraituko dugu; hau da, helmugara iristea lortu zutenen historia. Euskal lurraldea galdu eta gero, dakigunez, Jaurilaritza Bartzelonan kokatu zen eta, hura erori eta gero, Parisen. Bi hiri horietako bulegoetan sortutako dokumentuetako batzuk ere 2009. urtera arte Artean gordetako funtsaren barruan daude gaur egun. Bartzelonatik datorren dokumentu multzoa txikiagoa da, hango ebakuazioa gorabeheratsua izan zelako. Izan ere, Kataluniako dokumentu gehienak suntsitu edo indarrez ebatsi zituzten, eta, gero, Madrilera edo Salamancara eraman.

Baionara eta Parisera iritsi ziren dokumentuek eta 1937 eta 1940 bitartean bi toki horietan sortutakoek ez zuten helmuga bera izan. Baionakoak suntsitu egin ziren polizia frankistak atzeman ez zitzaiz eta, hala, errepresio polizial edo judizialik izan ez zedin. Jean Ibarregarai familia eta Gazteria ministroak euskal abertzaleen interesen kontra eragindako kanpainaren beldur, Parisko dokumentuak segurutzat jotzen zuten toki batera ebakutzeko asmoa zuten; Ernest Pezet betrioiaren (Frantziako Parlamentuko Kanpo Auzietako Batzordeko presidenteordea eta LIABeko idazkari nagusia) etxera, hain zuzen, baina, alemanek Frantzia hartu zuten bezala, ezinezkoa suertatu zen. Dokumentuak paketatu eta Britainiara eramateko geltokira iristea lortu zuten, baina bidean atzeman zituzten⁹. Alemanek Frantzia hartu eta gero, Espainiako

⁹ Secundino Urrutiaren (lekualdatu beharrekoa inbentariatzeko eta paketatzeke arduraduna) txostenaren arabera, dokumentuak harrapatu zituzten Balerdi delako batek frankistei esan zielako dokumentuak non zeuden. Jende gutxik zekien artxiboa Pezetaren etxera eraman behar zela eta Balerdi horietako baten laguna zen. «Nik ez dut uste —zioen Urrutiak— horretan jardun zutenen zabartasunik

poliziak, Gestaporen laguntzarekin, dokumentu horiek konfiskatu zituen, honako asmo honekin: errepublikazaleak inkriminatzeko dokumentuak edo ondasunen jabegoa frogatzeko idatziak aurkitzea, Espainiako Estatuak beretzat erreklamatzeko, esanez Estatu hura Errepublikaren oinordekoa zela, eta, beraz, haren ondasunen oinordekoa. Egia esan, indarrean zegoen nazioarteko legediaren arabera, Euzko Jaurlaritzak Estatu Errepublikarraren zatia zenez, eta hura Franco jeneralaren Gobernuak ordezkatu zuenez, Euzko Jaurlaritzaren izenean zeuden ondasun guztiak Espainian ezarri berria zen Gobernuarenak izatera igaro ziren.

Eta halaxe izan zen. Estatu frankistak Frantzian konfiskatutako ondasunak Avenue Marceuren 11. zenbakiko jauregitxoan zeuden, hura baitzen Euzko Jaurlaritzaren egoitza. Etxe hori Eusko Alderdi Jeltzaleak erosi zuen 1937ko urriaren hasieran, Amerikan bizi ziren kideek eta jarraitzaileek emandako ekarpenei esker. Han hartu zuten ostatu Euzko Jaurlaritzako sailburuek eta errefuxiatuei laguntzeko eta euskal auziari laguntzeko hainbat erakundek eta elkartek, hala nola LIABek. Egoitza konfiskatu eta berehala, 1940ko uztailaren erdialdean, frankistek han kokatu zuten Errekuperatze Batzordea delakoa; Gerra Zibilean ebakutatutako ondasunak berreskuratze sortu zen erakunde hori. Jauregitxo hura Errepublikari konfiskatutako eraikin bakarra izan zenez, Frantzian ibiltzen ziren agente frankisten egoitza bihurtu zen, eta, horren ondorioz, Errepublikako erakunde erbesteratuei konfiskatutako dokumentu asko bildu zituzten Avenue Marceaun. Izan ere, euskal ordezkartzako artxiboez gain,

eta axolagabekeriarik dagoenik, aipatutako gertaerak izan ezik (...). Nork pentsa zezakeen, orduan, Pezet jaunaren etxea toki segurua ez zela? Horregatik atera zen artxiboa oso-osorik, ezer kendu gabe, guk dena gorde nahi genuelako, eta, une horietan, gizon hark dokumentuak gordetzea zen aukerarik argiena. Izan ere, oso erraza izango zen horiek erretzea, baina nork daki hori ez ote zen hanka-sartze bat izango?», Secundino Urrutiaren txostena, Taussat (Gironde), 1940/07/15 eta 20, AHNV, EBB 100-6.

frankistek konfiskatzen zituzten ondasunak bildu ziren han, hala nola altzariak, arte-lanak, bitxiak, balioak eta artxiboak¹⁰.

Dokumentu horiek guztiak eraikin horretan zentralizatzeak helburu bikoitza zuen. Alde batetik, Espainiara aldian-aldian bidaltzen ziren dokumentuak antolatzea, jardun klandestinoak eta erresistentziakoak frogatzeko eta etsai politikoak epaitzeko eta zigortzeko; bestetik, dokumentazioa analizatzea erbesteratutako lagunen izenean zeuden ondasun materialak desjabetzeko. Hala ere, dokumentu kopuru handia zegoenez, ezin izan zuten berrikusi eta bidali nahi izan zuten bezain azkar, eta, horri esker, 1944an alemanek Paris hartu zutenean, frankistek konfiskatutako dokumentu asko Avenue Marceun zeuden oraindik ere, eta euskal agintariengana itzuli ahal izan ziren.

Thorpehall edo Dieleman kasua

1937ko ekainean, frankistek Bilbo hartu baino egun gutxi batzuk lehenago, Euzko Jaurlaritzak Thorpehall baporea pleitatu zuen bere ondasunak eta zenbait partikular eta finantza erakunderenak ebakutzeko. Gorde nahi ziren dokumentu horien artean, honako hauek zeuden: Euzko Jaurlaritzako Ogasun Saileko Idazkaritzakoak, EAJren BBBren (Bizkai Buru Batzar) artxiboaren zati bat, Miguel Cortésen (Sabino Aranaren garaikidea) artxibo pertsonalaren funtsa (EAJren sortzailearen jatorrizko eskutitz asko biltzen zituena) eta hasierako euskal nazionalismoarekin lotutako dokumentuak.

Hasiera batean, ontzi horrek Bordelera eraman behar zituen dokumentuak, eta, han, beren jabeai emango zitzaizkien. Mota

10 Horien artean, *Comisión Técnica Española*ren (CTE) Artxiboa zegoen; Errepublikaren erakunde horrek Parisen zuen egoitza, eta Gerra Zibilaren logistikarekin zerikusia zuen guztiaz arduratzen zen, Espainiako Enbaxadako merkataritza-bulegoarekin batera lan egiten zuen. Beste bi erakunderen artxiboak ere konfiskatu zituzten: *Comité Nacional de Ayuda a Española*rena (CNAE) eta *Servicio de Evacuación de Refugiados Españoles*ena (SERE); azken hori Negrínen Gobernuak sortu zuen 1939ko martxoan eta Pablo Azkarate zuen buru.

bereko ondasunak lekualdatzean Frantziako portuetan gertatu zena ikusita (Frantziako agintariek ondasunak judizialki bahitzen zituzten), euskal agintariek erabaki zuten zama hura portu seguruago batera eramatea, Walcheren uharteko Herbehereetako Flessinga portura, hain zuzen. Aurretik egindako itsas ebakuazioetan, Espainia nazionalaren aldeko administrazio-kontseiluek auzi-eskeak aurkeztu zituzten horretaz arduratzen ziren agintari judizialen aurrean, esanez merkantziaren igorleek, Euzko Jaurlaritzak eta banku eta aurrezki-kutxetako eta Errepublikaren aldeko administrazio-kontseiluek ez zutela ondasun horien gaineko eskumenik, eta egiatan beren balioak bidegabe ebasten ari zirela.

Salaketa horien ondorioz, Frantziako agintari judizialek agindu zuten ondasun horiek judizialki atxikitzeko, kasua epaitu arte¹¹. Baina errezelok izan arren eta nahiz eta Herbehereetako portu horretara Bordelen barrena iristeko ahalegina egin zen, agente frankistek Bredako epaitegietan aurkeztutako auzi-eskearen ondorioz, agindu judizial bat eman zen Thorpehall baporeak zeramatzan ondareak kautelaz bahitzeko.

Kontua zen Herbehereetako Gobernuak ez ziola lege-nortasunik aitortzen Euzko Jaurlaritzari, eta beraz, ezin zuen eskatu atxikitako ondasunak itzultzeko. Orduan, euskal agintariek Errepublikako Gobernuari eskatu zioten zenbait laguni boterea eman ziezaien auzian parte hartu ahal izateko. Andres Perea EAE-ANVko agintaria aukeratu zen lan horretarako. Baina euskal agintariek diotenez, Espainiako Gobernuak, oro har, ez zuen laguntza handirik eman¹². Auzi

11 Lehenago, Cerbére-n, Santandertik zetozen Kenfing-Pool eta MacGregor baporeen merkantzia atxikita gelditu zen. 1.050 bat kaxa ziren; horietatik, 600 bankuetako, aurrezki kutxetako eta erakunde ofizialetako dokumentuak ziren, eta beste 450 kaxa Euzko Jaurlaritzaren dokumentuak ziren. Auzia Bordeleko eta La Rochelleko epaitegi zibiletan egin zen. Espedientea Euzko Jaurlaritzako Justizia Sailak tramitatu zuen, 1937, AHNV, GE, 14-2. Auziari buruzko informazio gehiago: AHNV, GE 6-1, 14-7, 13-6.

12 «Espainiako Gobernuak, berriz, adierazi digu ez digula lagundu behar gure

horretan interesak zituzten euskal herritarrek elkarre bat sortu zuten beren interesen alde egiteko, eta diruz lagundu ahal izan ziren Euzko Jaurlaritzak, bera zela esan gabe. Elkarre horrek abokatu nederlandar bat kontratatu zuen, W. K. H. Dielman izenekoa; eta, Gerra Zibila bukatu eta gero, akordio bat lortu zuen auzi-eskatzaileekin. 1940ko maiatzean akordioa betearaztear zegoela, alemanek Herbehereak okupatu zituzten, eta aukera horrek porrot egin zuen. Gertaera horregatik eta 40ko hamarkadaren lehen erdialdean izandako gerra-egoera zela-eta, Euzko Jaurlaritzak Thorpehall baporean ebakuatutako funts dokumentalak Herbehereetako Komertzio Elkartearen esku egon ziren, 1937az geroztik, eta, 1940tik aurrera, Bredako banku bateko kutxa gotor batean gorde zituzten eta edozein jardueratarako geldiarazi zituzten. Bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero, bazirudien Herbehereetako agintariek ondasunak eta balioak itzuli behar zizkietela beren jabeei, baina Dieleman abokatuari naziei lagundu izana egotzi zioten, eta, horren ondorioz, mugimendu guztiak geldiarazi ziren 1948ra arte; garai hartan hasi ziren poliki-poliki konfiskatutako ondasunak itzultzen.

Baina Dielemanena ez zen azken ustekabea izan. Funtsak berreskuratzeke Herbehereetako agintariek izandako auzi-izapide korapilatsuaz gain, dokumentu horiek kaltetu egin ziren, bai naziek alde egitean urtegiak suntsitu zituztelako,

eskarien auzi-eskean, esanez ezin zuela Konfiskatze Dekretua baliozkotu, eta, gainera, auzian zuzenean parte hartu behar du bitxiak bereak direla aldarrikatzeko, Bitxiak atzerrira eramatea debekatzen duen Errepublikaren Dekretuan oinarrituta. Beraz, haren tesiak dio bitxi horiek behar ez bezala ebakatu direla eta, horrenbestez, Errepublikarenak direla eta ez beste inorenak». «Situación pleito de Holanda» izeneko txostena, 1938/06/09, AHNV, GE 282-1. Honako dokumentu hauek ere egiten diote erreferentzia auzi horri: «Asunto relativo a las joyas embargadas en el vapor Thorpehall» (1937), Angel Perez Anuzitak —Ogasun Sailaren ordezkaria, auzian zegoena— Eliodoro de la Torreri —Ogasun sailburuari— idatzitako eskutiz bat (Paris, 1937/09/04) eta «Asuntos pendientes en Holanda» izeneko txostena (1938ko azaroa); horiek denak honako honetan daude: AHNV, GE 282-1, baita GE 373-1 karpeta beste hainbat dokumentu (txostenak, eskutitzak) ere.

bai 1953an uholdeak izan zirelako. Baina, gainera, urte horietan, Francoren erregimena onartzen hasia zen. Halaber, Ameriketako Estatu Batuek eta mendebaldeko Europako haren aliatuek elementu geostrategiko garrantzitsutzat jo zuten, komunismoari aurre egiteko, eta, beraz, egoera horregatik ez zen gomendagarritzat hartzen Bredan gordetako dokumentuak berreskuratzen saiatzea, beldur baitziren edozein gestio eginez gero Espainiako Enbaxadak esku hartuko zuela. Hori dela-eta, nahiago izan zuten frankisten esku-hartzerik ez gertatzea, eta dokumentuak lekualdatzeko beste egoera politiko bat egon arte itxarotea.

Egoera hori diktadorea hil eta gero iritsi zen. Bredako funtsaren berri izan gabe hogeit hamar urte igaro eta gero, 1976an, Dieleman harremanetan jarri zen Euzko Jaurlaritzarekin, euskal herritarren eskubideak babesteko sortutako elkarte likidatzeko eta, azkenik, ebakuatutako dokumentuak emateko¹³. Dokumentuak, lehenbizi, Anberesera eraman ziren, eta, han, beste hogeit hamar urtez egon ziren Juan Maria Agirrereren —Belgikako Euzko Jaurlaritzako ordezkariaren— etxean. Azkenean, handik Bilbora eraman ziren bi zatitan, eta, gero, Arteako Agiritegira.

2.2.2. 1940tik aurrerako dokumentuak

Dakigun bezala, Euzko Jaurlaritzako egoitzako 1940tik 1944ra bitarteko dokumentazio guztia ez zen inoiz Espainiako Estatura bidali. Honako dokumentu hauek osatzen zuten multzo hura: Gobernuaren artxiboa, bai Parisen sortutakoa bai kanpotik etorritakoa; egoitza hartan gordetako dokumentuak (funts katalanak, artxibo pertsonalak...), eta frankistek konfiskatutako artxiboak. 300 paketetan bilduta egon zen, bidaltzeko prest, baina ez zen inoiz igorri.

13 1971 eta 1979 bitartean Jesus Maria Leizaola lehendakariak horri buruz trukaturako eskutitzak: AHNV, GE 759-2.

Paris askatu baino egun batzuk lehenago, 1944an, frankistek Avenue Marceauko eraikina utzi zuten, eta, han barrenean, paketatutako dokumentuak gelditu ziren. Irailean, euskal herritarren talde batek, Philippe Leclerc jeneralaren armadako soldaduak lagun zituela, eraikina berreskuratu zuen, eta, gerra bukatu eta gero, Euzko Jaurlaritzak han ezarri zuen bere egoitza berriz ere¹⁴. Hala ere, frankistek etengabe presionatu zuten Frantziako Gobernuaren eraikinaren jabeak zirela aldarrikatuz, eta, 1951ko ekainean, Frantziako agintariek eraikina uzteko eskatu zuten. Euskal ordezkarietako kideek Rue Singeren zegoen beste egoitza batera joan behar izan zuten. Baina paketatutako dokumentu guztiak hartuta joan ziren egoitza berrira, eta, gero hamarkadetan, kontserbatu egin zituzten horiek guztiak.


Dena den, Euzko Jaurlaritzak diru-arazoak izan zituen eta Singer kaleko orubea saldu behar izan zuen. Jaurlaritzak erosi zuen pisua oso txikia zen egunero sortzen ziren dokumentuak eta hainbat bosturtekotan kontserbatutakoak gordetzeko, eta, eguneroko lanetan artxibo horiek erabiltzen ez zirenez, ordezkarietako diruzainak, Agustin Alberrok, erabaki zuen material horretaz libratzea. Peru Ajuriak garaiz hartu zuen esku eta ez zen horrelakorik gertatu. Azkenik, Juan Ajuriagerra EAJko lider nagusiarekin akordio bat lortu, eta erabaki zen paketatutako dokumentuak EAJko dokumentu-ondarearen zati bihurtuko zirela, Izarra etxean (Baionako Beyris auzoa) gordetzen zirenekin batera. Horixe zen EBBko (Euskadi Buru Batzarra) Lapurdiko egoitza 1957. urtearen bukaeraz geroztik. 30eko hamarkadaren bukaeraz eta 40ko hamarkadaren hasieraz geroztik, urteetan zehar dokumentu horiek gorde ziren bezala bidali ziren trenez Baionara.

14 Poliki-poliki, beste hainbat erakunderen bulego nagusia bihurtu zen, hala nola: Euskal Mugimendu Federalista, Euskal Ikasleen Elkarte, *Nouvelles Equipes Internationales* erakunde kristau-demokrataren euskal taldea, Penn Klubaren euskal atala, LIAB, Errefuxiatuen Nazioarteko Erakundearen osasun-ordezkaritza, *Euzko Deya* egunkaria eta *Eskualtzaleen Biltzarra*.

Londresko Ordezkaritzako artxihoak ere Beyrisko eraikinera bidali ziren. Horiek 1937 eta 1970 bitartean sortutakoak hartzen zituzten. Halaber, Baionako Ordezkaritzatik zetozen 1944tik aurrerako dokumentuak ere hara eramán ziren, baita ordezkaritza horren mende zeuden ordezkariordeztetik zetozen funtsak ere.

Beraz, han, Izarra etxeko sotoetan utzi ziren bai Paristik etorritako dokumentuak (ebakuatu zituztenak zein erregimeneko poliziak konfiskatu ez zituenak, ordezkaritzak 1944 baino lehenago eta gero sortutakoak eta frankistek Avenue Marceautik alde egin zutenean han gelditu zirenak), bai Londresko eta Baionako ordezkaritzetatik zetozenak. Denborak aurrera egin ahala, dokumentu horien edukia eta dokumentuak berak ia ahantzi egin ziren. Arteako (Bizkaia) Abertzaletasunaren Agiritegira 1992ko udan eramán zituzten.

EUZKADIKO GOBERNUAREN FUNTSA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUEN HISTORIA



2.2.3. Dokumentu hutsuneak

Beraz, aurreko ataletan aipatutako dokumentuak Paristik, Bartzelonatik, Londrestik eta Baionatik datoz eta Euzkadiko Gobernuko Funtsa osatzen dute. Euzko Jaurlaritzak 30eko hamarkadaren azken urteetan sortutako beste ordezkarietzako dokumentuak desagertu egin dira. Funts horien artean, Buenos Airesko eta New Yorkeko ordezkarietzak sortutakoak dira garrantzitsuenak. Buenos Airesen sortutako dokumentuen historiari buruz ez dugu berririk, eta kaxa bakarra gorde da; hala ere, susmatzen dugu partikularren eskuetan egin daitezkeela.

New Yorkeko funtsak ere ez dira gaur egun arte iritsi, baina, kasu honetan, badakigu zergatik. 1956ko martxoan, Rafael Leónidas Trujillo diktadore dominikarraren soldatapeko agenteek Jesús Galíndez, New Yorkeko Euzko Jaurlaritzako ordezkaria eta Ameriketako Estatu Batuetako zerbitzuetako agentea, bahitu eta hil egin zuten. Hura nola desagertu zen argitzeko, FBIk ordezkarietzaren egoitzan eta Galíndezaren etxebizitzan artxibatutako dokumentu guztiak konfiskatu zituen. Ameriketako Estatu Batuetako Administrazioaren esku gelditu ziren dokumentuen artean, honako hauek zeuden: ordezkariaren artxibo pertsonala, Madrilgo EAJko Ordezkarietzaren artxiboaren zati bat, 1940 eta 1946 bitartean Galíndezek zuzendutako Santo Domingoko Ordezkarietzaren artxiboa eta, azkenik, New Yorkeko Ordezkarietzako (1938an Manuel de la Sotak eta Anton Iralak sortua) artxiboa eta Boiseko azpiordezkarietzako dokumentuak.

Euzko Jaurlaritzako New Yorkeko Ordezkarietza erakunde ofiziala ez zenez, Ameriketako Estatu Batuetako agintari judizialek erabaki zuten han sortutako dokumentuak ez zirela Jaurlaritzarenak, ordezkariarenak baizik, eta, hori egon ezean, haren oinordekoarenak. New Yorkeko Ordezkarietzako dokumentu guztiak galdu zirela ikusita, eta frankisten esku buka ez zezaten, Euzko Jaurlaritzako ordezkariak uko egin

zioten funtsa berreskuratzeari eta dokumentuen zati bat behintzat gordetzea nahiago izan zuten. Horretarako esan zuten Galíndez 1948tik aurrera izan zela hango ordezkaria, eta, beraz, horren aurreko dokumentuak lehenagoko ordezkariarenak zirela, Anton Iralarenak, hain zuzen ere¹⁵.

Gainera, bere testamentu holografoan, Galíndezek eskatzen zuen ezen «bere artxibo guztiak eta dokumentu politiko guztiak Euzko Jaurlaritzako lehendakariari (orain Parisen bizi baita) eman behar zitzaizkiola». Baina testamentuaren egilea pertsona desagertutzat jotzen zenez, dokumentu horiek ezin izan ziren itzuli¹⁶; hilik zegoela egiaztatu izan balitz, ordea, berehala itzuliko ziren dokumentuak. Ameriketako Estatu Batuetako agintariak haren aitari eman zizkioten Galіндеzen dokumentuak; hura Madrilen bizi zen. Euzko Jaurlaritzaren dokumentu horiek berreskuratzen saiatu zen, eta Galíndez jaunarekin jarri ziren harremanetan, baina haren ahaide hurbilek esan zuten suntsitu egin zituela.

Iralaren garaian sortutako dokumentuak Jon Oñatibiari eman zizkioten, hura izan baitzen Galіндеzen ondorengo ordezkaria, eta hark, Agirre lehendakariak hala aginduta, Bigarren Mundu Gerraren garaian ordezkari izandakoari, Irene Renteriarri, eman zizkion. Une horretan galtzen dira New Yorkeko Ordezkaritzako artxiboen arrasto guztiak.

2.3. Funtsa eta EAJ

Lehenago esan dugu gorde diren dokumentu gehienak, Gizarte Laguntzakoak izan ezik, EAJren esku egondako sailtakoak direla. Hori ez da kasualitate hutsa eta

15 Euzko Jaurlaritzako Lehendakariak 1956 eta 1963 bitartean ordezkari izandako dokumentuak berreskuratzeko tramitatutako dokumentuak: AHNV, GE 649-1. Halaber, 1961 eta 1970 bitartean egindako gestioen informazioa hemen aurki dezakegu: AHNV, GE 755-3.

16 Cf. AHNV, GE 649-1.

nabarmentzeko modukoa da. Dokumentu horiek gorde dira gordetzeko borondatea egon delako, eta bi arrazoiengatik zegoen borondate hori. Batetik, antolatu eta gorde zuten pertsonak, besteak beste, Secundino Urrutia, burokratak (termino hori ontzat hartuta) zirelako; administrazioan lanean arituak ziren eta bazekiten garrantzitsua zela dokumentuak ongi antolatzea. Artxibatze-prestakuntza akademikorik izan gabe, oso ongi antolatu zituzten Lehendakaritza Sailak sortutako dokumentuak, Frantzia 1940an erori zen arte. Haien inbentarioak, gaur egun ere, oso erabilgarriak dira, eta, kasu batzuetan, beharrezkoa da horiek kontsultatzea, esaterako, egun zer dokumentu ez diren existitzen jakiteko.

Bigarrenez, haiek eta haien nagusiak nazionalistak eta idealistak ziren, eta honako ideia hau oso barneratuta zeukaten: egiten ari zirena historian markatuta geldituko zela, beren herrialdearen etorkizuna markatuko zuen historiaren zati batean, hain zuzen ere. Sendo uste zuten geroko Euskadi izan zitekeenaren lehen harriak jartzen ari zirela, eta herrialde horren historia, neurri handi batean, haiek sortuko eta gordeko zituzten dokumentuei esker idatziko zela. Horren erakusgarri da Gerrak iraun zuen bitartean Kultura Sailak Gerraren museo bat sortzea aurreikusi zuela, eta, horretarako, dokumentuak eta materiala bildu zituela¹⁷.

Baina gure ustez, dokumentuak gorde izanak argi eta garbi erakusten du dokumentuak gordetzeko asmoa eta borondatea zituztela; izan ere, dokumentu horiek gordetzea oztopo handia zen, eta, batez ere, oso arriskutsua. Gainera, dokumentuak gordetzeko dirua behar zen, eta, erbestean egonda, zaila zen gastu horri aurre egitea.

Errazagoa izango zen dokumentuak bertan behera uztea, baina horiek gordetzearen alde egin zuten. Horrenbestez,

17 ZENBAITEN ARTEAN, *Inventario de fondos documentales vascos en el Archivo Histórico Nacional*, sección Guerra Civil de Salamanca, Irargi, Bergara, 1996.

ahalegin handiak egin ziren gerrak iraun zuen bitartean dokumentuak Bilbotik ateratzeko, baita gero horiek rue Singerera eramateko eta egoitza hori utzi behar izan zutenean beste kokaleku bat bilatzeko ere. Oso adierazgarriak dira Manuel Irujok Jesus Solauni kale horretako 48. zenbakian gordetzen ziren funtsei buruz idatzi zizkion hitz hauek:


«Jon Bilbaok esan zidan Baionako Euskal Museoa artxiboa jasotzeko prest egongo litzatekeela. Alberrok zioen artxiboa hobeki egongo litzatekeela Beyrisko sotoetan, etxe hartan, Baionako Euskal Museoa baino. Euzko Jaurlaritzako barneko kontuak, erbestearnak, okupazio alemanaren ondorioz sortutako istiluak, Amigos de los Vascos elkartekoarenak, ordezkartzen jarduerenak... Gai horiek gure mendean gordeta egoteko egokiagoak dira, eta garai hobeak iritsi arte itxaron beharko dugu teknikari egokiek ondoren horiek sailka ditzaten. Orain suntsitzen badituzte, akabo da berreraikitze historikoaren itxaropena, irakasbidez eta eskarmentuz betetakoa. Irtenbidea edozein dela —nik Alberrok iradoki duenaren alde egingo nuke, hainbat arrazoirengatik—, beharrezkoa da artxiboa kaxatan sartzeta eta Baionara poliki-poliki bidaltzen haseta, eta, hala, artxiboa salbatuko dugu. Arren eskatzen dizut auzi honetan parte har dezazun eta Euzko Jaurlaritzaren artxiboa gordetzeko beharrezkoa den guztia egin dezazun. Uste dut ez dela beharrezkoa idazten ari naizen hau arrazoitzea. Aintzat har ezazu zer nolako erantzukizuna dugun inguru honetan bizi garen guztiok, artxiboa modu ergelean galtzen bada»¹⁸.

Egia da Gizarte Laguntzako Saileko dokumentuak ere gorde direla eta Juan Gracia sozialistak zuzendu zuela sail hura, eta, gainera, material asko dago. Dena den, dokumentu horiek guregana iritsi dira, polizia frankistak 1940an konfiskatu

18 Manuel Irujok Jesus Solauni (EBBko idazkaria) idatzitako eskutitza, Leigh, 1966/08/23, AHNV. Horri erantzuteko zera zioen Solaunek: «Zenbaitek diotenez, ekarritakoak ez omen du inolako baliorik eta beste nonbaitera joan behar omen luke, suntsitzera, hain zuzen. Baina dena delakoa hemen gorde egingo da. Eskerrak alderdiak etxe hau erosi zuen!». Solaunen erantzuna, Baiona, 1966/09/27. Bi dokumentuak Solaun Funtsean daude, EBB 376-3.

zituelako eta aliatuek Paris askatu eta gero Avenue Marceaun utzi zituztelako. Halaber, egia da Leizaola sailburuaren sailetako funtsetan dokumentu gutxi dagoela, baina besteak partikularren esku daudelako ez dira guregana iritsi.

Beraz, EAJko buruzagiak ohartu ziren beharrezkoa zela dokumentu horiek gordetzea, eta, horregatik, horiek kontserbatzeko, babesteko eta hurrengo belaunaldietara helarazteko asmo argia izan zuten. Urrutiak eta haren kideek eta gero artxibo horiek bere gain hartu zituztenek lan ezin baliotsuagoa egin zuten funtsak antolatzeko. Gerora, EAJko hurrengo belaunaldiek horren lekukoa hartu zuten eta, aurrekoek bezala, funts horiek gorde nahi izan dituzte, eta, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia sortuaz, horiek antolatu eta ezagutarazi.



3. FUNTSAREN
ANTOLAMENDUA,
DOKUMENTU MOTAK
ETA EDUKIA

3.1. Antolatze irizpideak

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko teknikariek Izarra etxetik zetozen dokumentuak antolatzean izan zuten arazorik handiena zera izan zen: urte luzez etxe horretan gordetako pakete horietan zer zegoen ez zekitela. Jatorri-irizpideari jarraituta, dokumentu horiek zein erakundek sortu zituzten jakitea zen eman beharreko lehen urratsa. Laster ikusi zen dokumentu gehienak Euzko Jaurlaritzako eta EAJko artxiboetakoak zirela, baina beste erakunde batzuek sortutakoak ere bazeuden. Dokumentuekin batera agertzen ziren zerrendak eta inbentarioak esku batek baino gehiagok eginak ziren, une desberdinetan eta atal desberdinetarako, eta, batzuetan lagungarriak baziren ere, beste batzuetan, berriz, nahasmen handiagoa eragin zuten. Gainera, zerrenda horiek, oro har, ez ziren hasieran aurkitu, antolatze-lanak nahikoa aurreratuta zeudela baizik.

Euzko Jaurlaritzaren Funtsa antolatzeko zailtasunik handiena zera izan zen: erakunde horrek bizitza luzea eta konplexua izateaz gain, barne egiturako organigramarik ez zuela. Jaurlaritzaren aldizkari ofizialean kontsultatuta, neurri batean, zenbait arrasto aurkitzen ziren, baina atal bati zegozkion dokumentuetarako bakarrik, 1937ko ekainean Bilbo erori zenean utzi baitzitzaion aldizkari hori argitaratzeari. Beraz, ia zerotik abiatuta ekin behar izan zitzaion Jaurlaritzaren dokumentuei.

Sortu zenetik 1979an Leizaola lehendakaria Euskadira itzuli arte Euzko Jaurlaritzaren banaketa iraunkor bakarra sailetan eta ordezkaritzatan oinarritutakoa izan zen, eta, banaketa hori, jatorri-irizpidearen arabera, errespetatu egin zen. Dena den, irizpide horiei 1940 baino lehenagoko eta 1945etik (garai

horretan ekin baitzitzaien berriz ere jarduera politiko eta ofizialei) aurrerako dokumentuek jarraitzen zioten, besteek ez. 1940 eta 1945 bitartean ez dago Euzko Jaurlaritzaren beraren dokumentu organikorik, dakigun bezala tarte horretan gobernu sakabanatuta egon zelako eta, harekin batera, haren funtsak. Baina, erronka horri eutsita eta irizpide orokorre jarraituta, sail eta ordezkari guztiak identifikatu zituzten, eta haien dokumentuak funts independentetan sartzen saiatu ziren. Beraz, Euzko Jaurlaritzaren Funtsa antolatzeko, irizpide organiko bat hartu da irizpide nagusitzat. Dena den, hori ez da traba izan atalen bat irizpide funtzionaletan oinarritzeko, zenbaitetan organoek gain funtzioak ere identifikatzen baitira. Funtzio horiek administrazio orokorrari —funtzio orokorrari— egin diezaioke erreferentzia edo eskumen edo atal jakinei —funtzio espezifikoei— lotuta egon daitezke.

3.2. Dokumentu motak

Erakunde administratibo baten dokumentuak badira ere, eta, hain zuzen ere, sortu zenetik Euzko Jaurlaritzak bizi izan zituen gorabehera historikoengatik, beraren funtsak ez ditu dokumentu mota asko biltzen, behintzat Administrazio publikoaren organismoek izaten dituzten dokumentu moten kopuruarekin alderatuta. Erbesteak zekarren egoerak eragozten zuen dokumentuek pauso burokratikoak eta ohiko prozedura administratiboari jarraitzea.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren arduradunek, Beyrisetik Arteara iritsi ziren funtsen deskribapenaren eta antolamenduaren arduradunek aurreikusitako funts hauek ikertzaile akademikoek zein ikertzaile ez-profesionalek erabiliko zituztela, Euskadiko historia osoa aztertu nahi zutenek zein historia horren kapitulu jakin eta berezi bat landu nahi zutenek. Hori dela-eta, dokumentu-serie ahalik eta zehatzenak deskribatu zituzten, eta garrantzi berezia eman zioten funtsak hartzen duen denbora-tartean euskal

agintariek trukaturako eskutitz guztiak zerrendatzeari. Hau da, berdin deskribatu zituzten Jose Antonio Agirre lehendakariak eta Manuel Irujok (biak euskal nazionalismoaren buruzagi garrantzitsuak eta Euskadiko historia hurbilaren protagonista nagusietarikoak) elkarren artean trukaturako eskutitzak eta Agirrek La Roseraien artaturako edozein euskal errefuxiatuekin trukaturakoak.

Halaber, eskutitz horren gaiak ere deskribatu zituzten. Deskribapen hori ez zen posta-truke horien zerrendatzea bezain zehatza, baina ahalik eta gai gehien zehazten saiatu ziren. Horretarako egindako fitxan, muturreko datak emateaz gain, eskutitz guzti-guztiak aipatzen ziren baita horietan landutako gaiak ere; halaber, horietan agertzen ziren auzirik berezianak zehatzago deskribatzen ziren.

3.3. Funtzaren edukia

Euzko Jaurlaritzaren Funtza honako dokumentu hauek osatzen dute: Gobernu Kontseiluaren kideek (lehendakariak eta sailburu gehienek) sortutako dokumentuak, Euzko Jaurlaritzaren Administrazioak zituen organo nagusiek sortutakoak eta haren ordezkarietan sortutakoak. Dokumentu horiek denbora-tarte handia hartzen dute, 1936tik 1979ra, eta, beraz, bi lehendakarien, Agirrearen eta Jesus Maria Leizaolaren, agintaldiak.

Euzko Jaurlaritzaren Funtza antolatzeako, irizpide organiko bati jarraitu zaio. Euzko Jaurlaritzaren egitura aintzat hartuta, dokumentuak hamabi sailetan antolatuta daude, eta horietako bakoitza, aldi berean, azpiataletan banatuta dago; azpiatal horietako batzuek ere badituzte hainbat dokumentu multzo. Dokumentu gehienak honako hauei dagozkie: Lehendakaritza (13 multzo), Defentsa (13), Gizarte Laguntza (6), Ogasuna (6), Merkataritza eta Hornikuntza (5), Industria, Marina eta Arrantza (3), Gobernazioa (3), Kultura (2), Nekazaritza

(1), Justizia (1), Osasuna (1) eta Lana, Aurreikuspena eta Komunikazioak (1).

3.3.1. Sailez sail

Jarraian, funts horren edukia laburbiltzen saiatuko gara baina sail horietako dokumentu guztiak eta horietan ageri diren gai askotarikoak zehazki deskribatzeko asmorik izan gabe, eta gehien lantzen diren gaiak nabarmenduko ditugu. Gure asmoa zera jakitea da: sail bakoitzean zer gai agertzen diren, zein egoeratan dauden dokumentuak, zein hizkuntzatan idatzi ziren eta zein denbora-tartetakoak diren.

3.3.1.1. LEHENDAKARITZA

Lehendakaritzako dokumentuak Agirre lehendakariaren eta Leizaola lehendakariaren idazkaritza partikularrak eta nagusiak sortutako dokumentuak dira, baita bi lehendakariak eta haien idazkariak interes handiarekin landu zituzten gaiak buruzko materiala ere. Dokumentu gehienak 1936 eta 1940 bitartekoak dira, Euzko Jaurlaritzaren lehen urteetakoak, eta, beraz, neurri handi batean, gerra-egoeran idatzitakoak dira; hala ere, Gobernuaren egunerokoari buruzko zenbait multzo ere badaude, baita erbesteko ordezkariak buruzkoak ere, eta horiek 1979 bitartekoak dira. Gehienak gaztelaniaz idatzita daude, baina ingelesez eta frantsesez idatzitakoak ere badaude. Sail garrantzitsu horretako dokumentuak egoera onean daude.

Lehendakaritzako dokumentuak asko eta oso aberatsak direnez, sail horretako banaketa organikoari jarraituko diogu, haren edukia ongi ulertu ahal izateko; hau da, azpiatalak hartuko ditugu kontuan.

Idazkaritza Partikularra izeneko azpiatalaren dokumentuak 1936 eta 1940 bitartekoak dira eta bi gairekin lotuta daude

batez ere: Lehendakaritzako organoen kudeaketa eta gerra-garaian sortutako dokumentuak. Lehen multzoan, batetik, Jose Antonio Agirrerren eskutitzak ditugu, bai eskutitz pertsonalak, baita beste kargudun eta lider politikoekin (Euskadikoekin, espainiar errepublikazaleekin eta katalanekin) trukaturakoak ere; azpimarratzekoa da Lluís Companysen eta Generalitatearekin izandako posta-trukea. Bestetik, honako dokumentu hauek ditugu: nazioarteko politikagaiei buruzkoak, udalekiko, aldundiekiko eta Jaurlaritzako beste sailekiko harremani buruzkoak, gobernuaren bilera-agiriak eta Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak. Bigarren multzoak gerra-garaian eta hasierako erbestealdian sortutako dokumentuak biltzen ditu. Bilboko defentsari eta ebakuazioari buruzko dokumentuak dira, eta presoentzako eta erbesteratuentzako laguntza-eskariak.

Beraz, kasu gehienetan eskutitzak eta komunikatuak dira. Baina dekretuak, espedienteak, informazio-espedienteak, txostenak, instantziak, kontu-liburuak, oharra, poemak, hitzaldiak, epaiak eta telegramak ere baditugu. Horiek denak egoera onean iritsi dira gaur egunera arte.

Idazkaritza Orokorrari dagozkion dokumentuak, beharbada, sail horretako ugariak dira. Bi multzo handitan bana ditzakegu; batetik, 1936 eta 1940 bitartean sortutako dokumentuak, hau da Bilboko, Bartzelonako eta Parisko dokumentuak, eta, bestetik, 1944 eta 1978 bitartean Parisko egoitzan sortutakoa.

Lehen multzoko dokumentuak (1936-1940, Bilbao, Bartzelona, Paris), kasu gehienetan, urte luzez Lehendakaritzako idazkari nagusia izandakoarenak dira: Julio Jauregirenak. Haren idatzien artean, bi gairi buruzko dokumentuak aurkituko ditugu batez ere. Alde batetik, Idazkaritza Nagusiaren kudeaketari dagozkion dokumentuak, eta, bestetik, gerra-garaiakoak eta hasierako

erbestealdikoak. Idazkaritza orokorreko dokumentu asko barneko dokumentuak ziren, hau da, idazkaritzak eguneroko kudeaketan sortutako dokumentuak: Jauregik Agirre lehendakariarekin eta haren idazkari partikularrekin (Pedro Basaldua) eta idazkari nagusiarekin (Anton Irala) trukaturako eskutitzak, Jaurlaritzako beste kideekin trukaturako eskutitzak, euskal ordezkariarekin eta Euzko Jaurlaritzako sailekin izandako harremanak, udaletako eta probintziako administrazioekiko harremanak, ELA sindikatuarekin izandako erlazioak, euskal ordezkariak Katalunian zuten egoerari buruzko dokumentuak eta saileko eta beste sail batzuetako aurrekontuak. Halaber, honelako dokumentuak ditugu: Jaurlaritzatik kanpoko erakundeekin eta euskal erakundeekin izandako harremanei dagozkienak (gobernu zibilekin, Generalitatearekin, kontsulatuarekin eta Erresuma Batuko agintariekin, Nazioen Biltzarrari eta LIABi buruzko informazioa eta atzerrira egindako bidaiak eta ordezkari diplomatikoekin egindako elkarriketak) eta propagandari buruzkoak (irradi bat erosteari buruzkoa, *Eresoin*ari buruzko informazioa, Euzkadiko futbol taldeari buruzkoa, zinemari eta liburuei buruzkoa, irradi-diskurtsoak eta Agirre lehendakariaren Eguberri mezuak).

Bigarren multzoan, gerraren egoerari eta erbestealdiari dagozkien dokumentu ugari daude Jauregiren dokumentu-bilduman. Gai horiei buruz egingo diren ikerketetarako, funtsezkoak izango dira; izan ere, honako hauei buruzko informazioa biltzen da: Espainiako iparraldean gerra nola gertatu zen, Santoñako Ituna, Euzko Gudarostea eta haren operazio militarrik, Euzko Jaurlaritza Katalunian finkatu izana, gerra-hegazkinak eraikitzeke planoak, euskal atxilotze-zentroetako presoek zerrendak eta horiei emandako arreta, presoek trukeak, heriotzaz zigortutakoek eta fusilatutakoek erregistroak...; bestalde, itsasontzien ebakuazioak, haur ebakuatuak, errefuxiatuak, ospitaleak (La Roseraie batez ere),

zauritutako eta elbarritutako eusko gudariei emandako arreta, kontzentrazio-esparruak, haurren udalekuak, JAREkiko (Junta de Auxilio a los Republicanos Españoles) harremanak...

Agirrereren (1944tik 1960an zendu zen arte) eta Leizaolaren agintaldien garaian saileko idazkaritza nagusian egindako kudeaketari dagozkio multzo honetako dokumentuak (1944-1978, Paris). Idazkaritzek eguneroko lanetan sortutako dokumentuez gain, Euzko Jaurlaritzak Europako erakunde eta entitateekin izandako harremanei dagozkienak nabarmendu behar dira funtsen multzo honetan; izan ere, batetik, baditugu idazkaritzak Jaurlaritzako beste atalekin, aholkularitza batzordeekin, Euzko Jaurlaritzako ordezkariarekin (Europakoekin zein Amerikakoekin) eta lider politikoekin (Manual Irujorekin, esaterako) trukaturako eskutitzak; baina, bestetik, eta bereziki, material ugari dago Estatuko beste erakundeekin izandako harremanei eta kanpo-harremanei buruz. Besteak beste, honako hauekin izandako harremanenak dira: Kataluniarekin, Galiziarekin eta Espainiako Errepublikarekin izandakoak, Europako mugimendurekin eta beste zenbait mugimendu federalistarekin izandakoak, Europako Kontseilua, *Mouvement Republicain Populaire* erakundea, *Nouvelles Equipes Internationales* (NEI) izeneko nazioarteko mugimendu kristau-demokrata, OIR-IRO (Organización Internacional de Refugiados)..., baita alderdi politiko eta sindikatu asko ere.

Beraz, Lehendakaritza Sailari dagokion funtsa oso aberatsa eta askotarikoa da, eta, horrenbestez, dokumentuak ere mota askotakoak dira. Dударik gabe, dokumentu gehienak eskutitzak dira. Halaber, komunikatu, informazio-espedita eta txosten asko daude. Aurrekoek gain, honelakoak ere badaude: agiriak (batez ere Parisko dokumentuen artean), egunkarietako artikulua, baimenak, buletinak, ziurtagiriak, zirkularrak, komunikatuak, hitzaldiak, deialdiak, koadernoak, kontuak, adierazpenak, dekretuak, diskurtsoak, akreditazio-dokumentuak, dosierak,

idatziak, estatutuak, espedienteak, argazkiak, propaganda-orriak, instantziak, liburuak, kontu-liburuak, sinadura-liburuak, manifestuak, oharra, prentsa-oharrrak, aginduak, musika-partiturak, planoak, ponentziak, prentsa, aurrekontuak eta telegramak. Egoera onean daude dokumentuak.

Emigratio azpiataleko dokumentuak ere ugariak dira. 1937 eta 1940 bitartean sortutako dokumentuak dira; gaztelaniaz idatzita daude, eta Euzko Jaurlaritzako Emigratorako Ordezkaritzaren kudeaketari buruzkoak dira. Batez ere, haren bi buru izandakoek trukaturako eskutitzak dira, hau da, Julio Jauregiaren eta Migel Jose Garmendiarenak. Horietako lehenbizikoa EAJko ordezkariera ere bazen CNAEn (Comité Nacional de Ayuda a España) eta SEREn (Servicio de Emigración de Republicanos Españoles), eta, horren ondorioz, eskutitz asko trukatu zituen agintari eta kargudun politikoeekin eta euskal errefuxiatuekin, Hegoamerikako herrialdeetara emigratzeko dirulaguntzen eskariei buruz. Garmendiaren kasuan ere, hainbat pertsona eta erakunderekin trukaturako eskutitzak ditugu; horietan, euskal errefuxiatuak Amerikako hainbat herrialdeetara (Venezuela, Argentina, Txile, Mexiko...) eta Filipinetara joateko gauzak prestatzeko laguntza eskatzen da.

Beraz, dokumentu gehienak eskutitzak dira. Honelakoak ere badaude dokumentu multzo horretan: Frantzia herbeste-ertratutako espainiarrei buruzko estatistikak, gizarte-laguntzetarako instantziak, emigranteei idatzitako eskutitzak, itsasontzietan joandako euskal errefuxiatuen zerrendak, kontzentrazio-esparruetako euskal presoaren egoerari buruzko txostenak eta abar.

Lehendakariatzako azpiatalen artean, Ordezkaritzei dagokiena ere oso aberatsa da¹⁹. Logikoaenez, dokumentu horiek ordezkaritzetan sartuta multzokatu ditugu: Anberes

19 Euskal Abertzaletasunaren Agiritzean dohaintza partikular gisa utzi diren ordezkarien dokumentuak ez daude Euzko Jaurlaritzaren Funtsean barruan.

(1938), Bartzelona (1937), Baiona (1937-1979), Brusela (1937-1938), Bordele (1937-1939), Londres (1937-1962), Paris (1937-1977), Perpinyà eta Oloron (1938-1940) eta Mexiko (1942-1954). Dudarik gabe, Baionako eta Londresko ordezkarietzako dokumentuak dira ugarietak.

Baionako dokumentuak ordezkarietzaren kudeaketari buruzkoak dira, eta, batez ere, eskutitzak dira, Eliodoro de la Torre sailburuak, Javier Gortazar ordezkariak, Jose Manuel Oruezabala ordezkariordeak eta Juan Manuel Epaltza idazkariak hainbat lagun eta erakunderekin trukaturakoak. Hor agertzen diren gaiak, oinarrian, emigrazioarekin lotuta daude (euskal errefuxiatuen zerrendak, alde egindakoentzako eta errefuxiatutakoentzako laguntzak, SEBSera erbesteratutako eta ebakutatutako euskal haurren kokalekuak, baporeetan ebakutatutakoek beren familiei bidalitako eskutitzak, errefuxiatu politikoaren estatusa lortzeko ziurtagiriak, emigratzeko dokumentuen izapideak, errefuxiatuen joan-etorriak, errefuxiatuen erroldak...). Baionako Ordezkaritzako kudeaketari buruzko dokumentuak (gastuak, aurrekontuak, balantzeak, propaganda-lana) eta beste ordezkarietzakiko, Espainiako zenbait alderdi politikorekiko eta hainbat enbaxadarekiko harremanei buruzkoak. Halaber, azpiatal horretan bildutako dokumentuek honako hauei buruzko datuak ematen dizkigute: Euskal Brigada, Pointe de Graveko erasoak, okupaturako Frantzia zeudenen ebakuazioa, itsasontziak bidaltzea, erbesteratuen kokalekua, kontzentrazio-esparruak... Aurrekoaz gain eta bereziki, hainbat erakunderekin izandako harremanei buruzko informazioa: Aholkularitzarako Frantziako Euskal Kontseilua, Gerran Elbarritutako Euskal Erbesteratuen Frantziako Elkarteak, Comisión Distribuidora de la Ayuda a Venezuela para los Patriotas Vascos Refugiados en Francia izeneko elkarteak, Alianza Juvenil Vasca, Euskal Penn Kluba, *Euzko Gogoak* aldizkaria eta EKA (Euskal Kulturaren Alde) elkarteak.

Londresko Ordezkaritzako artxiboek, eguneroko kudeaketaz gain, Jose Ignazio Lizasoren, Manuel Irujoren, Angel Gondraren eta Jesus Hickmanen dokumentuak biltzen dituzte. Horretaz gain, errefuxiatuei eta presoiei emandako arreta, Erresuma Batuko hainbat agintarirekin eta erakunderekin izandako harremanei (hala nola *Foreign Officerekin* izandakoak) buruzko informazioa eta *Euzko Etxea* eta *Mid Atlanticeko* euskal marinelei buruzko dokumentuak ageri dira.

Parisko Ordezkaritzan, Rafael Pikabea Etxeberria ordezkariak trukaturako eskutitzak daude, batez ere, eta, Bordeleko Ordezkaritzan, berriz, Juan Zubiaga Aldekoa idazkariak trukaturako eskutitzak. Ordezkaritza guztietan agertzen dira kontzentrazio-esparruei, euskal erbesteratuei eta errefuxiatuei buruzko edukiak.

Beraz, ordezkariak dagozkien dokumentuak, oro har, eskutitzak dira, baina kontuak eta ordainagiri asko ere badaude. Halaber, honako dokumentu hauek ere badaude: agiriak, prentsa-artikuluak, erroldak, ziurtagiriak, komunikazioak, kontratuak, adierazpenak, akreditazio-dokumentuak, dosierak, estatutuak, fitxak, informeak, instantziak, erregistro-liburuak, zerrendak... Gehienak gaztelaniaz idatzita daude, baina, logikoa denez, badaude ingelesezko eta frantsesezko dokumentu asko; euskarazko batzuk ere badaude, baita katalanezkoak ere. Denak egoera onean iritsi dira gaur egunera arte.

Jesus Maria Leizaolak eta Joseba Rezolak Euzko Jaurlaritzako lehendakari eta lehendakariorde gisa, hurrenez hurren, egindako kudeaketari dagozkion funtsak ere oso aberatsak dira. Lehen funtsak 1941 eta 1979 bitarteko denbora-tartea hartzen du, eta Gobernuaren kudeaketari eta EBBkin eta Espainiako Errepublikarekin izandako harremanei dagozkien dokumentuak dira, baita propaganda-organoekin lotutako

kontuak ere, hala nola *Euzko Deyarekin*, *OPerekin* eta *Egi Billarekin*. Baina, batez ere, hainbat elkarte eta erakunderekin izandako harremanak dira nabarmentzekoak: *Association pour l'etude des problemes de l'Europe*, Sindikatu askeen Nazioarteko Konfederazioa, Kultura Askatasunaren Biltzarra, *Consejo Federal Español del Movimiento Europeo*, Zuzenbide pribatua bateratzeko Nazioarteko Institutua, *Mouvement Republicain Populaire*, Europako Mugimendua, NEIak, EB eta *Spanish Consultations*. Gauza bera gertatzen da Joseba Rezolaren 1963 eta 1966 bitarteko dokumentuekin. 1963an Francisco Javier Landaburu hil zenean, Rezolak hartu zituen bere gain Euzko Jaurlaritzako kanpo-harremanak, eta, hori dela-eta, funts horren dokumentu gehienek zerikusia dute Demokrata Kristauen Nazioarteko Elkarteko (NEIren izendapen berria 1965az gero) bilarekin eta biltzarrekin. Bi funts horietako dokumentuak gatzelaniaz eta frantsesez idatzita daude, eta egoera onean iritsi dira gure eskuetara.

Lehendakaritzako beste dokumentu multzo guztiak beste azpiatale dagozkie, baina orain arte deskribatutakoek baino dokumentu askoz gutxiago dituzte. Honako azpiatal hauek dira: Truke Bulegoa, presoek fitxak eta 1938an egindako trukeen txostenak; Gerrako Elbarrien Egoitza, Juan Jose Basterraren (Euzko Jaurlaritzako Gerrako Elbarrien Egoitzen zuzendaria) eskutitzak eta haren funts bibliografiko eta hemerografiko partikularra; Euzko Deya funtsa, kazetaritza-artikuluak, buletinak, liburuxkak, posta-trukea... (laguntzaileek bidalitakoak edo kazetaren Parisko zuzendaritzan bildutakoak); Sail arteko Batzordea, Gonzalo Nardizen (idazkaria) eskutitzak eta erakunde horrek tramitatutako dokumentuak, laguntza ekonomikoak emateko eta erbesteratutako langabetuei lana emateko; zerbitzu bereziak, zerbitzu berezietako txostenak (alderdi nazionalaren jarduerari buruzkoak eta matxinoen eremuko jarduera erlijiosoari buruzkoak) eta 1937 eta 1940 bitartean Lehendakaritzako Informazio Zerbitzuak

egindako txostenak; azkenik, Euskal Mundu Biltzarra ere Lehendakaritzaren barruan sartu da, hain zuzen ere, 1956 eta 1957 urte bitarteko Biltzarrari buruzko dokumentuak. Funts horietan guztietan, gaztelania da hizkuntza nagusia eta dokumentuak egoera onean daude.

Laburbilduz, Lehendakaritza Sailean, dokumentu asko daude eta funts osoko dokumentu multzorik esanguratsuenetakoa da. Funtsaren zati hori oinarritzakoa da Euzko Jaurlaritzako sail horrek nola funtzionatzen zuen eta zer nolako kanpo-harremanak zituen jakin nahi izanez gero; baina, horretaz gain, informazio garrantzitsua ematen du garai horietan Jaurlaritzak eta euskal herritarrek nolako egoera bizi izan zuten jakiteko, hala nola Gerra Zibilean, Bigarren Mundu Gerran eta hasierako erbestealdian; halaber, hurrengo hamarkadetan Jaurlaritza nola kudeatu zen ikus daiteke. Gainera, funtsezkoa da Agirre eta Leizaola sakonago ezagutzeko eta ordezkartzen historia berreraikitzeke.

3.3.1.2. DEFENTSA SAILA

Dokumentu horiek Gerra Zibilaren garaian sortu ziren, 1936 eta 1939 bitartean. Sailaren azpiatalak hartu dira aintzat dokumentuak banatzeko. Hegazkintza, Kartografia, Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia, Euzko Gudarostea, Gotorlekuak, Industria mobilizatuak, Informazio orokorra, Intendentzia Militarra, Gerra Ontzidia, Gerra Pentsioak, Errekrutatzea eta Mobilizatzea, Osasun Militarra eta Gerra Garraioak. Hau da, funts oinarritzakoa da Gerra Zibila Euskadin nolakoa izan zen hobeki jakiteko.

Azpiataletako izenburuek berek adierazten digute zer aurki dezakegun funts horretan. Dokumentuak, lehenik, Euzko Gudarosteari buruzkoak dira: batailoiak eta atxikitako brigadak, bouetako tripulazioa, gudariak, buruzagien zerrendak, ofizialak, ofizialordeak eta soldaduak, osasun-

langileak, gudarosteko kargudunak izendatzea, Euzkadiko Epaitegi Militarra...; bigarrenik, azpiegitura militarrei eta intendentzia-lanei buruzko dokumentuak ditugu: Polizia Militarra edo Ertzaintza, Gerra Ontzidia, Euzkadiko Eskola Militarra, Lehendakartzako Informazio Irratitelegrafikorako eta Irratitefonikorako Zerbitzua, armamentua, parkeak, gotortze-lanak, aterpeak, munizioak, armak eta soldaduak garraiatzea; hirugarrenik, gerra nola gertatzen ari zen kontatzen zuten dokumentuak: operazio militarrek nola antolatu eta nolakoak izan ziren, Defentsa Saileko dokumentuak, Euzko Jaurlaritzako Kataluniako Ordezkaritzako dokumentuak, agente frankistek Frantzian egindako espioitza-jarduerei buruzko txostenak...; laugarrenik, buruzagien antolamenduari eta aginduei buruzko dokumentuak daude: Espainiako Iparraldeko Armadaren Estatu Nagusiko aginduak eta operazioak, buruzagi militar eta politikoen bilerak, Bizkaiko Defentsa Batzordeko bilerak, Joseba Rezolaren eta Juan Jose Basterraren (Defentsa Saileko idazkari nagusiak izandakoen) eskutitzak, sail horrek Gerra eta Gobernazio ministerioekin izandako komunikatuak, Armadaren atalen arteko komunikatuak...; eta bosgarrenik, kaltetutako herritarrei buruzko dokumentuak: heriotzaz zigortutakoen zerrenda, presoak eta okupatutako lurraldean zeuden emakume eta haurrak, biztanleria zibila ebakuatzea, euskal errefuxiatuek beren familiei idatzitako eskutitzak, gerra-pentsioak...

Ez da harritzekoa, beraz, txosten, zerrenda eta komunikatu ugari egotea. Halaber, honelakoak ere ageri dira: bilera-agiriak, agendak, baimenak, eskutitzak, kontuak, dekretuak, akreditazio-dokumentuak, txostenak, argazkiak, erregistro-liburuak, mapak, aginduak, gerra-txostenak, proiektu teknikoak, telegramak... Dokumentu gehienak gaztelaniaz daude. Ingelesezko batzuk ere badaude. Dokumenturen bat kenduta —izen-zerrendaren bat—, dokumentazio ia guztia egoera onean dago.

3.3.1.3. GIZARTE LAGUNTZA SAILA

Euzko Jaurlearitzako Gizarte Laguntza Sailak 1936 eta 1940 bitartean sortutako dokumentuak dira. Gizarte Segurantzaren izeneko azpiatalak bakarrik biltzen ditu geroagoko funtsak; hain zuzen ere, 1944 eta 1963 bitartean sortutako gizarte-laguntzarako espedienteak.

Saila hainbat azpiataletan banatuta zegoen: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Administrazio Nagusia, Gizarte Laguntzarako Zuzendaritza Orokorra, Ebakuazioa eta Gizarte Segurantzaren; baina dokumentu mota berak agertzen dira horietan guztietan. Oinarrian, sailaren eguneroko lanetan sortutako dokumentuak dira; halaber, badaude Juan Graciak, Gizarte Laguntzako sailburuak, gobernuko beste kargudunekin eta errefuxiatuei laguntzeko erakundeekin trukaturako eskutitzak. Hor lantzen diren gaiak honako hauekin dute lotura: errefuxiatuen ebakuazioa eta arreta, elbarriak hartzea, dirulaguntzak ematea, La Roseraie eta Dax-eko egoitzak, kontzentrazio-esparruak, euskal haurren Ingalaterrako udalekuak, gerra-presoen fitxak eta trukeak, SEREkiko erlazioak... Horregatik, eskutitzez gain, honelakoak ere badaude: zirkularrak, komunikatuak, kontuak, adierazpenak, estatistikak, espedienteak, fitxak, argazkiak, txostenak, instantziak, inbentarioak, erregistro-liburuak, zerrendak, aginduak, planoak, aurrekontuak, araudiak, epaiak... Gaztelaniaz idatzita daude eta egoera onean iritsi dira gure eskuetara.

3.3.1.4. OGASUN SAILA

Funts horretan, Euzko Jaurlearitzako Ogasun Sailak 1936 eta 1979 bitartean sortutako dokumentuak daude bilduta. Azpiatal horietako batzuetako dokumentuak —Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Ordezkaritzak eta Balioak azpiataletakoak— 1936 eta 1947 bitartekoak dira;

Kontabilitatea azpiatalekoak 1953 artekoak dira, eta Agustin Alberroren (urte luzez Parisko Ordezkaritzako diruzaina izandakoa) dokumentuak, 1940 eta 1979 bitartekoak.

Idazkaritza Nagusiak bildu du dokumentu gehien. Honako dokumentu multzo hauek ditu: Ogasun Idazkaritza Nagusia (Anberes, 1936-1937), Eliodoro de la Torre (1937-1945), Angel Perez Anuzita (1937-1940), Luzio Aretxabaleta (1937-1940) eta Jose Aretxabaleta (1939-1940). Anberesko dokumentuak Dieleman kasuari dagozkionak dira; hau da, Herbehereetako agintariak atxiki eta Bredako kutxa gotor batean urte luzez egondako dokumentuak dira. 1953ko uholdeek kaltetu egin zituzten dokumentuak eta, horren ondorioz, material hori oso egoera txarrean dago. Horixe da funts osoan zaharberritu behar den zati bakarra.

Oro har, sail horretako dokumentuak ordezkariek eta idazkariek trukaturako eskutitzak eta egunerokoa sortutako idazkiak dira. Alde batetik, baditugu sailari berari dagozkion dokumentuak, eta, bestetik, Euzko Jaurlearitza eta haren sailerako eta ordezkaritzetako kontabilitateari dagozkionak. Lehen multzoan, badugu, batetik, de la Torre, Anuzita, Luzio eta Jose Aretxabaletak errefuxiatuen arretari buruz hainbat agintarirekin trukaturako eskutitzak, dirulaguntzak eskatzen zituzten euskal errefuxiatuekin eta erbesteratuekin trukaturakoak, SAREekin eta JAREekin trukaturakoak...; bestetik, baditugu sailak egindako lanetan sakontzen laguntzen dituzten dokumentuak, aduana-gestioak, Euzko Jaurlearitza zor zituen diruen itzuli-agiriak...

Ordezkaritzak azpiatala eskutitzek, Baionako Ordezkaritzako diru-kontuek eta Ildefonso Iralak trukaturako eskutitzek osatzen dute. Balioak izenekoan, honako honi buruzko informazioa aurki dezakegu: balioak ebakuatzeagatik eta Frantziako auzitegiek (Rochelleko Auzitegiak, Middelburg-eko Auzitegiak, Céret-eko Auzitegiak) horiek bahitzeagatik

sortutako auziak. Alberroren dokumentuak batez ere, trukaturako eskutitzak dira.

Baina dokumentu gehienak eskutitzak, espedienteak eta kontuak badira ere, honelakoak ere baditugu: bilera-agiriak, kazetaritza-artikuluak, aholkularitza, balantzeak, zirkularrak, komunikatuak, kontuak, adierazpenak, dekretuak, ekonomia-dokumentuak, notario-dokumentuak, informazio-txostenak, fakturak, fitxak, argazkiak, ziurtagiriak, erregistro-liburuak, oharra, aginduak, aurrekontuak, araudiak eta telegramak... Dokumentu horiek gaztelaniaz idatzita daude.

3.3.1.5. MERKATARITZA ETA HORNIKUNTZA SAILA

Batez ere, Ramon Maria Aldasorok, Merkataritza eta Hornikuntza sailburuak, 1937 eta 1938 bitartean egindako kudeaketari dagozkio dokumentu gehienak. Lau azpialatu ditu: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Espainiako Iparraldeko Merkataritza eta Hornikuntza Zuzendaritza Nagusia eta Likidoen eta Erosketen Zuzendaritza Nagusia; hala ere, aurreko sailek baino askoz dokumentu kopuru txikiagoa du. Euskal presoari eta erbesteratuari buruzko dokumentuak (ziurtagiriak tramitatzekoak, presoaren zerrendak) dira eta, batez ere, Gerra Zibilean hornidurak eta janaria inportatzeari eta erosteari buruzkoak. Beraz, eskutitzez eta ziurtagiriez gain, honelakoak ere baditugu: txostenak, aurrekontuak, produktuen zerrendak eta fakturak.

3.3.1.6. INDUSTRIA, MARINA ETA ARRANTZA SAILA

1936 eta 1940 bitartean sortutako dokumentuak dira. Lau azpialatu ditu: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Lege Aholkularitza eta Ogasunaren Esku-hartzea. Dokumentu gehienak, kasu honetan, bigarren atalari dagozkio. Baina, oro har, gai berak lantzen dira atal guztietan. Sailak berak eta haren hiru unitateek —Industria Zuzendaritza Nagusiak,

Merkataritza Ontzidirako Zuzendaritza Nagusiak eta Arrantza Zuzendaritza Nagusiak— tramitatutako idatziak dira. Santiago Aznar sailburuaren eta Jose Goñi saileko idazkari nagusiaren eskutitzak ditugu, baita sailaren organizazioari eta funtzionamenduari buruzko informazioa ere (Gipuzkoako Arrantza-enpresa Antolatzeako Kontseiluaren funtzioak eta eskumenak eta enpresa-ordezkariek izendatzeko arauak, dekretuak, aginduak...).

Gerra-egoera dela-eta, aipatutako hiru eremu horietan sortutako arazoei dagozkie dokumentu gehienak. Industria: Euskadiko industrien egoera, beste herrialde batzuetan industriak jartzeko aukera, enpresen jarduerak, fabriketatik eta lantegietatik ebakutatutako materialak, makineria, material elektriko-industrialen zerrendak; marina: bouetako tripulazio ebakuatua, Frantzia errefuxiatutako ontziak, euskal ontzidiaren ebakuzioa eta arrantza: euskal arrantza-ontzidiaren egoera, ontzien zerrendak, Frantziako arrantza-portuak erabiltzea, arrantzatutakoa eramatea... Beraz, espedienteak eta txostenak dira nagusi. Baina honelakoak ere badaude: ziurtagiriak, zirkularrak, komunikatuak, eskutitzak, kontuak, dekretuak, informazio-txostenak, fakturak, instantziak, liburuak, zerrendak, izen-zerrendak, aurrekontuak, araudiak... Gaztelaniaz idatzita daude eta egoera onean iritsi dira gaur egun arte.

3.3.1.7. GOBERNAZIO SAILA

Telesforo Monzon (1936-1940) eta Jose Maria Lasarte (1942-1953) Gobernazio sailburuek sortutako dokumentuak dira. Sailaren egunerokoan sortutako dokumentuak dira, hala nola sailburuek hainbat lagunekin eta erakunderekin trukaturako eskutitzak, sailak bidalitako komunikatuak, pasaporteen eskaerak, atxikitako pertsonen eta presoek buruzko informazioa, gerrarengatik kalte-ordainak, erbesteratutako funtzionarioak... Telesforo Monzoni

dagokion azpiatalean, honako dokumentu hauek daude: Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren artxiboak eta Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusiaren artxiboak eta Ertzantzari eta Polizia Motorizatuari buruzkoak; Lasarteri dagokion azpiatalean, berriz, nabarmentzekoak dira OPErekin (hark sortutako informazio-aldizkaria) lotutakoak eta Europako Mugimenduko Espainiako Kontseilu Federalarekin lotutakoak, hango idazkaria izan baitzen.

Kasu honetan ere, dokumentu gehienak honelakoak dira: eskutitzak, katalogoak, komunikatuak, kontuak, adierazpenak, akreditazio-dokumentuak, informazio-espeditenteak, argazkiak, txostenak, instantziak, zerrendak eta araudiak... Gaztelaniaz idatzita daude eta egoera onean iritsi dira gaur egun arte.

3.3.1.8. KULTURA SAILA

Sail horretan, dokumentu gutxi daude. Gehien-gehienak Oinarrizko Hezkuntzarako Zuzendaritza Nagusiaren espeditenteak dira, 1933 eta 1937 bitartekoak, eta Jesus Maria Leizaolak 1937 eta 1940 bitartean Justizia eta Kulturako sailburua izan zenean sortutako dokumentuak. Honelako dokumentuak ditugu: eskutitzak, espeditenteak, txostenak, instantziak, agiri-liburuak eta aurrekontuak.

3.3.1.9. NEKAZARITZA SAILA

Nekazaritza Saitetik datozen dokumentuak ere oso gutxi dira. Gonzalo Nardiz sailburuak trukaturako eskutitzak dira, honako gai hauei buruz: nekazaritza-aterpeak, Venezuelako emigrazioa eta errefuxiatuentzako dirulaguntzak. Eskutitzez gain, kazetaritza-artikuluak, inprimakiak eta txostenak ditugu, 1936 eta 1939 bitartekoak. Gaztelaniaz idatzita daude eta egoera onean iritsi dira gure eskuetara.

3.3.1.10. JUSTIZIA SAILA

Justizia Sailean oso dokumentu gutxi ditugu; Jesus Maria Leizaola sailburuak Euzko Jaurlaritzako hainbat kargudunekin eta bestelako pertsona, agintari eta erakundeekin trukaturako eskutitzak dira. Aipatzekoa da Dominikar Errepublikako euskal emigranteen bizimodua erregulatzeko proiektu bat. Oro har, honelako dokumentuak aurki ditzakegu: eskutitzak, komunikatuak, espedienteak, txostenak eta prentsa. Gaztelaniaz idatzita daude, 1936 eta 1940 bitartean, eta egoera onean iritsi dira gure eskuetara.

3.3.1.11. OSASUN SAILA

1937 eta 1940 bitarteko dokumentuak dira eta hainbat azpiataletan banatuta daude: Idazkaritza, Ospitaleak, Erietxeak eta Klinikak; hala ere, oso gutxi dira. Osasun Sailaren kudeaketari dagozkio, eta gehienak osasun-txostenak dira, batez ere eri zeuden haurrenak. Horiek ere gaztelaniaz daude eta egoera onean.

3.3.1.12. LAN, AURREIKUSPEN ETA KOMUNIKAZIO SAILA

1936 eta 1938 bitartean Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio Sailean sortutako dokumentuak dira, haren hiru ataletan, hain zuzen ere: Idazkaritza, Komunikaziorako Zuzendaritza Nagusia eta Gaitzea. Sail horrek beste sailekin trukaturako eskutitzak eta kudeaketa-lanetatik sortutako dokumentuak dira gehienak (espedienteak, fakturak, ordainketa-aginduak eta izen-zerrendak). Gaztelaniaz daude eta egoera onean.

Laburbilduz, Euzko Jaurlaritzako funtsetan, Lehendakaritza Saileko dokumentuak dira ugariak eta garrantzizkoenak. Hori ulertzekoa da kontuan hartzen baditugu lehendakariak, batez ere Jose Antonio Agirrek, egindako lan itzela eta

Agirrek buruzagi eta kargudun politikoeekin izandako erlazio eta harreman ugariak. Bigarrenik, argitu beharrekoa da ordezkariak guztien dokumentuak, emigraziokoak eta beste azpiatal oso garrantzitsuenetakoak Lehendakariak Sailaren barruan daudela. Hirugarrenik, gerran egonda eta Jaurlaritzara bera eta haren kideak sakabanatuta zeudenez, sail horrek, batzuetan, egoera normalean beste sail batzuei legezkiekeen eginkizunak bete zituen.

Izan ere, Funtzaren edukiaren azterketak argi erakusten du biltzen dituen dokumentu asko gerra-garaian sortu zirela, batez ere Gerra Zibilean. Defentsa eta Gizarte Laguntza sailek ere dokumentu asko dituzte, baina gehienak 1936 eta 1940 bitartekoak dira. Beraz, gure ustez, Euzko Jaurlaritzaren Funtza nahitaezkoa da Euskadin gerra nola gertatu zen argitzeko. Baina, halaber, beste hiru gai garrantzitsutan sakontzeko ere ezinbestekoa da: Euzko Jaurlaritzaren egitura, nola funtzionatzen zuen eta haren ordezkariaren historia; emigrazioa eta erbestealdia, eta Euzko Jaurlaritzak izandako kanpo-harremanak.

Lau multzo handi horietako bakoitzak hainbat gai txiki biltzen ditu, eta horiei ekin dakieke eta azter daitezke Euzko Jaurlaritzako Funtseko dokumentuak erabilia.

Erabilitako hizkuntzari dagokionez, aurreko orrialdeetan argi gelditu da dokumentu gehienak gaztelaniaz idatzi zirela; baina ingelesezko eta frantsesezko dokumentu asko ere badaude, batez ere Lehendakariaren eta ordezkariaren artxiboetan. Funtza egoera onean dago, Defentsako dokumenturen bat eta urteetan Herbehereetan atxikitako dokumentuak izan ezik.

3.3.2. Bestelako funts osagarriak

Euzko Jaurlaritzako Funtseko edukia analizatu eta gero, dudarik gabe esan dezakegu biltzen dituen dokumentuak 1936an sortu zenetik 1977 arte Jaurlaritzari buruz dagoen

dokumentu multzorik garrantzitsuena direla. Gainera, aurretik aipatutako gai multzoei ekiteko oinarrizkoak dira: Gerra Zibila, emigrazioa eta erbestealdia. Dena den, hori ez da gaur egun eskura dugun euskal gobernuari buruzko informazio guztia. Euzko Jaurlaritzaren Funtsa beste bi funtsekin osatzen da: Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroan (Salamanca) dauden Euskadiri buruzko dokumentu-funtsak ditugu, batetik, eta horiek Kultura Ministerioaren mende daude diktadura bukatu zenetik; eta, bestetik, Beyris Funtsa izenekoa dugu, eta hura Irargin (Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa) dago, Bergaran²⁰.

Gerra hasia zenez eta Jaurlaritzako kideek beren bizilekua presaka utzi behar izan zutenez, dokumentuak sakabanatuta gelditu ziren. Dokumentu batzuk suntsitu egin ziren, frankistek har ez zitzaizkion; beste batzuk galdu egin ziren hainbat arrazoi zirela-eta, eta beste zenbait dokumentu erregimenaren poliziak konfiskatu zituen. Azken horietan daude Salamancan gaur egun. Aurreko atalean esan den bezala, konfiskatutako dokumentu horiek alderdi errepublikarrean egondakoen kontra erabiltzea zen hasierako helburua, horiek politikoki eta judizialki zigortzeko.

Euzko Jaurlaritzako hainbat departamentuk, erakundek eta ordezkaritzak sortutako dokumentuak dira, eta Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroak bere egituran dituen dokumentu-serietako hainbat funtsetan sartuta daude. Batetik, Bilbao izeneko seriean, Euzko Jaurlaritzako sail gehienetako dokumentuak daude, eta Defentsa Sailekoak eta haren azpiataletakoak dira nabarmentzekoak. Gerrari buruzko

²⁰ Euskadiko Ondare Dokumentalaren Zentroa da Irargi. 1982an, Euzko Jaurlaritzako Kultura Saileko zerbitzu gisa sortu zen. Hasieran Bergarako Mikrofilm Zentroa deitu zitzaion eta Euskadiko artxibo publiko guztien funts dokumental historiko guztiak mikrofilmatzeko sortu zen, bai Jaurlaritzakoak, bai hala nahi zuten foru aldundietakoak eta udaletakoak. Halaber, honako asmo hau zuen: funts horiek gordetzea eta hedatzea eta beste artxibo eta liburutegien lana osatzea.

dokumentuak ditugu batez ere. Bigarrenez, Santander seriea dugu. Euzko Jaurlaritzaren Funtsa izenekoan, Euzko Jaurlaritzarenak berarenak diren dokumentuak daude, eta Jaurlaritzak bere egituran zituen sail guztietakoak dira. Errepublikaren Armadaren Funtsak izenekoetan, Euzko Gudarosteko dokumentuak daude (komandantzietatik etorritakoak, heziketa militarrekoak, hegazkin-armadakoak, itsas armadakoak, batailoiak...). Beste multzo batean, Barcelona izeneko seriean ere, baditugu, batetik, Euzko Jaurlaritzaren Funtsak (hor badaude Jaurlaritzaren sailtako eta haren mendeko erakundeetako dokumentuak), bestetik, Euzko Jaurlaritzako Kataluniako Ordezkaritzaren Funtsa eta Euzko Jaurlaritza Katalunian Funtsa eta, azkenik, Baionako Ordezkaritzaren funtsak. Beste alde batetik, Santander izeneko seriean bezala, badaude Euzko Gudarosteari buruzko dokumentu asko (batailoiak, brigadak, Estatu Nagusia...).


Laugarren multzoan, Generalitat izeneko seriea dugu, eta, hor ere, badaude Euzko Jaurlaritzaren dokumentuak. Bosgarrenean ere, Madrid izeneko seriean, baditugu, batetik, Euzko Jaurlaritzaren sailen funtsak, Kataluniako Euzko Jaurlaritzako Ordezkaritzarenak, Euzko Jaurlaritzako beste ordezkaritzenak eta Euzko Gudarosteko kidegoek eta erakundeek sortutako dokumentuak.

Salamancako dokumentuei buruz Euskal Herriko Unibertsitateko talde batek (José Luis de la Granja katedradunak zuzendua) egindako txostenean, honako informazio hau nabarmentzen da dokumentu horietatik guztietatik: Santander serieko Euzko Gudarosteko batailoiei buruzkoa, Jaurlaritzako eta Kataluniako Ordezkaritzako buruzagi eta kargudun politikoek sortutakoa eta Bilboko kartzelako erasoari buruzko eta Madrid serieko alderdi frankistako presoen sarraskiari buruzko espediente judizialak²¹.

21 ZENBAITEN ARTEAN, *Inventario de fondos documentales vascos en el Archivo Histórico Nacional, sección Guerra Civil de Salamanca*, Iragi, Bergara, 1996.

Beyris Funtsa deitu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin egindako akordioari esker EAJk Irargiri emandako dokumentu-funtsari. 1985 eta 1986 bitartean, zenbait alditan eraman ziren dokumentuak. Dakigunez, Beyris Baionako auzoa da, eta han dago Izarra etxea, EAJren egoitza. 1970 eta 1992 bitartean, han gorde ziren Paristik zetozen dokumentuak. Beraz, Beyris Funtsa Euzko Jaurlaritzaren Funtsaren zati bat da eta 1985ean hasi zitzaion Eusko Jaurlaritzari itzultzen. Lehen bi entregak 1985eko martxoan eta maiatzean izan ziren eta hirugarrena, 1986ko abenduan. Entrega horietan (34 kaxa eta 12 fitxategi), Izarra etxera iritsi ziren dokumentuen % 5 inguru helarazi zaizkio Eusko Jaurlaritzari.

Dokumentu horiek 1936 eta 1975 bitartekoak dira. Funts horiek, batez ere, Gerra Zibilari buruzkoak dira: barne-zerbitzu eta erakundetako dokumentu administratiboak, Euzko Gudarosteko dokumentuak, polizia motorizatuarenak, abiazio-partiak, karguen izendapenak, batailoiei buruzkoak, Osasun Militarrari buruzkoak, gerra-presoei eta presoan trukeei buruzkoa, planoak, mapak... Honako gai hauei buruzko dokumentuak ere badaude: erbesteari buruzkoak, Euzko Jaurlaritzak Errepublikaren Gobernuarekin (bai Gerra Zibilaren garaian, bai geroko hamarkadetan) izan zituen erlazioei buruzkoak eta Gizarte Laguntzako Saileko Gizarte Segurantzaz azpiataleko dokumentuak (euskal errefuxiatuei buruzko espedienteak). Kopuru txikiagoan bada ere, bestelako dokumentuak ere bazeuden, hala nola kulturarekin loturikoak, presoan zerrendak eta Bigarren Mundu Gerraren ondoren Euskal Herrira itzuli ziren herritarrei buruzkoak eta harreman sindikalei buruzko dokumentuak (batez ere, ELAk 1945 eta 1976 bitartean sortutakoak).



4. ONDORIOAK

Aurreko orrialdeetan islatu dira Euzko Jaurlaritzaren Funtsaren historia eta edukiaren analisiaren emaitzak. Analisi hori kontuan hartuta, esan daiteke, batetik, funts horrek balio historiko handia duela, eta, bestetik, Euzko Jaurlaritzari buruz eskura dugun funtsik garrantzitsuena dela. Oso funts aberatsa da, bai kuantitatiboki (780 bat kaxa, 97,5 metro lineal) bai kualitatiboki; garrantzi eta originaltasun handiko funtsa da, eta denbora-tarte handia hartzen du (1936-1979); beraz, oso garrantzitsua da Euskadiko historia hurbila aztertzeko. Izan ere, Euzko Jaurlaritzari buruzko hainbat gai (haren kanpo-harremanak, barneko erakundeak, mendeko erakundeak eta kargudun nagusiak) ikertzeari ekiteko dokumentu multzo handiena izateaz gain, funtsezkoa da emigrazioaren, erbestearen eta Gerra Zibilaren berri izateko. Egia da dokumentuak sortzen zituzten zenbait erakunderen dokumentuak falta direla; izan ere, horietako batzuk galdu edo suntsitu ziren, eta, Euzko Jaurlaritzak sortutako beste funts batzuk garai batean konfiskatu eta egun beste artxibo batzuetan daude. Hala ere, egun euskal gobernuaren dokumentuetatik gordetzen diren gehienak biltzen ditu Euzko Jaurlaritzaren Funtsak, eta ezin da zalantzan jarri haien garrantzia.

Garai batean konfiskatu ziren dokumentuak Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroan (lehen Espainiako Gerra Zibilaren Artxibo Orokorra) gordeta daude gaur egun. Funts hori oinarritzkoa da gerraren berri izateko eta, gainera, horri esker jakin daiteke Espainiako iparraldean gerra nola gertatu zen eta Euzko Jaurlaritzak gerra-urte horietan zer egin zuen. Hainbat sailletako eta ordezkarietako dokumentuak biltzen ditu, baina dokumentu gehienak antzekoak dira, eta aztertzen ari garen funtseko

Lehendakaritza eta, batez ere, Defentsa sailetan ditugun dokumentuak osatu egiten dituzte.

Euzko Jaurlaritzaren Funtsetik beste dokumentu multzo bat falta da; izan ere, 1985ean, EAJ Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailari hainbat dokumentu transferitzen hasi zen, eta, gaur egun, Irargin daude horiek. Izarra etxean jaso zenaren lagin bat denez (% 5 inguru), dokumentu motak eta gaiak, jakina, aztertzen ari garen funtsean agertzen diren berak dira.

Neurri berean ez bada ere, sail guztietako dokumentuak daude aztertzen ari garen funts horretan. Defentsa eta, batez ere, Lehendakaritza sailek dituzte dokumenturik gehien. Gizarte Laguntza eta Ogasun sailak dira hurrengoak. Ikerketa-gai ugari ekin dakioke funtseko dokumentuak erabilia; funtsa harribitxi bat da, batez ere Euskadiko XX. mendeko historia interesatzen zaienez.


Edukiaz gain, beste faktore batek ematen dio balio handia Euzko Jaurlaritzako Funtzari; izan ere, urte asko igaro badira ere eta gorabehera handiak pasatu behar izan baditu ere, dokumentu gehienak oso egoera onean kontserbatu dira. Herbehereetan atxikita egon ziren Ogasun Saileko artxiboan azpiataleko dokumentuak bakarrik daude hondatuta, hezetasuna dela-eta; beraz, horiek bakarrik behar dute zaharberitze-tratamendu espezifikoak.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak gorde izan dituen funts guztietatik funts horixe da gehien kontsultatu dena; horrek argi erakusten du oso garrantzitsua eta erabilgarritasun handikoa dela. Besteak beste, gudari, ertzain, preso eta erbesterratu izandako askok aurkeztu dute horko informazioa, pentsioak eta kalte-ordainak kobratzeko, eta, beraz, argi dago balio soziala ere baduela. Nabarmentzekoa da, halaber, hedabideek eta erakundeek eta instituzioek erabili dutela liburuak, artikuluak eta erakusketak osatzeko, eta, zera azpimarratu behar da: horko dokumentuak oinarritzakoak izan

direla ikerketa eta argitalpen askotarako (bai profesionalak, bai partikularrak).

Kudeatze eta hedatze lan horretan, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak funtsezko eginkizuna izan du. Baina agiritegia bera sortu baino askoz lehenago, EAJk beti izan du funts horiek gordetzeko asmo sendoa. Armada nazionala Bilbon sartu eta dokumentuak paketatu eta hainbat tokitara bidali behar izan zirenetik, eta erbestealdi osoan zehar, euskal buruzagi politiko nagusiak ohartu ziren dokumentu horiek eta sortzen ari zirenek balio historiko handia zutela, eta horiek antolatze eta gordetzeko gogo sendoari eutsi zioten, hurrengo belaunaldiari helarazteko asmoz. Buruzagi horien artean, EAJko kide batzuen irmotasuna azpimarratu behar da. Egia da zaila dela garai hartako Euzko Jaurlaritzaren eta EAJren arteko muga zehaztea, baina, frogatuta gelditu den bezala, alderdi horretako kideek egin zituzten funts horiek gordetzeko ahalegin handienak. Horregatik, hain zuzen, ditugun dokumentu gehienak EAJko kideak buru zituzten sailtakoak dira. Are gehiago, dokumentu horiek desegitear egon ziren Euzko Jaurlaritzaren egoitzan gordetzeko gehiegi zirelako, eta salbatu egin zituzten, EAJren Baionako egoitzara, Izarra etxera, eramane zituztelako. 1970az gero, 1992an Euskal Abertzaletasunaren Agiritegira eramandako Jaurlaritzaren dokumentu ia guztiak gorde ziren egoitza horretan, EAJren funtsekin batera. Abertzaletasunaren Agiritegian dokumentuen kontserbazio, antolamendu eta zabalkunde lan ezin hobe egin da

2009an Euzko Jaurlaritzaren Funtseko dokumentu guztiak Irargira eramane dira. Oraingoan, azken geldialdia da balio handiko funts honen bidaia luzean.



5. BIBLIOGRAFIA

ARRIEN, Gregorio; GOIOGANA, Iñaki, *El primer exilio de los vascos, Cataluña 1936-1939*, FSA-Fundació Ramón Trias Fargas/ Sabino Arana Fundazioa, Bartzelona-Bilbo, 2002.

ARXIU NACIONAL DE CATALUNYA, *El Fons Generalitat de Catalunya (II República) de l'ANC, 1933-1949 (Catàleg)*, Generalitat de Catalunya, 2001.

ARXIU NACIONAL DE CATALUNYA, *El Fons Generalitat de Catalunya (II República) de l'ANC, 1939-1940 (Catàleg)*, Generalitat de Catalunya, 2001.

BERNARDO, Iñaki; GOIOGANA, Iñaki, Galíndez: *Guerra, exilio y frustración*, Sabino Arana Fundazioa-Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 2006.

JIMÉNEZ DE ABERASTURI, J. C., *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial*, HAAE-IVAP, Bilbo, 1999.

LARRONDE, Jean-Claude, *Exilio y solidaridad. La Liga Internacional de Amigos de los Vascos*, Bidasoa, Bilbo, 1998.

MEES, Ludger, *El profeta pragmático. Aguirre, el primer lehendakari (1939-1960)*, Alberdania, Irun, 2006.

SEBASTIÁN GARCÍA, Lorenzo,

—*Entre el deseo y la realidad. La gestión del Departamento de Cultura del Gobierno Provisional de Euzkadi (1936-1937)*, HAAE/IVAP, Oñati, 1994.

—Y MENDEZA HERNÁNDEZ, Ana Gemma, «Euzko Deya, La voz de Euskadi/La Voix des Basques. Órgano de prensa del Gobierno Vasco en Francia, noviembre de 1936 a mayo de 1940», en *Espanoles en Francia 1936-1946. Coloquio internacional*, Universidad de Salamanca, 1991, 345.-456. or.

UGALDE ZUBIRI, Alexander, *La acción exterior del nacionalismo vasco (1890-1939): Historia, pensamiento y relaciones internacionales*, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, Oñati, 1996.

ZENBAITEN ARTEAN, *Informe colectivo sobre archivos, bibliotecas y hemerotecas para la historia del nacionalismo vasco*, Eusko Ikaskuntzaren X. Kongresua, Eusko Ikaskuntza, Iruñea, 1987.

ZENBAITEN ARTEAN, *Inventario de fondos documentales vascos en el Archivo Histórico Nacional, sección Guerra Civil de Salamanca*, Irargi, Bergara, 1996.

ERANSKINA: EUZKO
JAURLARITZAREN
ARTXIBO
HISTORIKOAREN
FUNTSAREN EGITURA

1. LEHENDAKARITZA

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Euzkadiko Gobernuaren Funtza	1936-1979	Gobernu Kontseiluaren kideek (lehendakariak eta sailburu gehienek), Euzko Jauriritzaren administrazioko garai bateko sailen organo zentralak eta Jauriritzaren ordezkariak sortutako dokumentuak. 12 sailetako dokumentazioa da: Lehendakaritza; Defentza; Gizarte Laguntza; Ogasuna; Merkataritza eta Hornikuntza; Industria, Marina eta Arrantza; Gobernazioa; Kultura; Nekazaritza; Justizia; Osasuna eta Lan, Aurrekuspun eta Komunikazioak. Jose Antonio Agirre eta Jesus Maria Leizaola lehendakarien garaiko dokumentazioa.	
Lehendakaritza	1936-1940 (1979)	Agirre eta Leizaola lehendakarien idazkaritza orokorrean eta partikularrean sortutako agiriak; gehienak, gerra garaian sortuak. Agiri ugari. Sail honen funtzionamendua eta kanpora zeuzkan harremanaren nondik norakoak ezagutzeko ezinbestekoa. Gerra Zibilean, Bigarren Mundu Gerran eta lehenengo erbestearen garaian gobernuak berak eta euskal herritarrek bizi zutenari buruzko informazio asko, eta horren ondoren, harnkada askotan, gobernuaren kudeaketaren nondik norakoak. Funtsezkoa da Agirre eta Leizaola lehendakariak hobeto ezagutzeko eta ordezkariaren historia azaltzeko.	

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Azpiatala: Idazkaritza partikularra	1936-1940	<p>Bi kontu jorratzen ditu batez ere:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Lehendakari izako organoen kudeaketa: <ol style="list-style-type: none"> a) Jose Antonio Agirrenen gutunak, bai bere-bereak, bai beste kargu edo lider politikoei idatzitakoak (batzuk eskaldunak, beste batzuk errepublikar espainiar edo katalanak; eta, batzuk nabarmentzekotan, Lluís Companys president-arekin eta Generalitatearekin izandakoak). b) Nazioarteko politikako kontuei eta udaletxe, aldundi eta Euzko Jauriaritzak beste sail batzuekin izandako harremanari buruzko dokumentazioa; horrez gain, gobernuaren bilkuren aktak eta Gobernu Kontseiluak hartutako akordioak. 2) Gerra garaian eta lehenengo erbestean sortutako agiriak. Bilboko defentsari eta ebakuazioari buruzko agiriak dira, eta presoentzako eta erbestertuertzako laguntza-eskariak. 	<p>Batez ere gutunak eta komunikazioak. Eta, horrez gain, dekretuak, espedienteak, informazio-espedienteak, bostenak, instantziak, kontu-iburuak, oharrak, poesiak, hitzaldiak, epaitzak eta telegramak.</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
<p>Azpiatala: Idazkaritza Nagusia</p>		<p>Seguruenik, sail honetako dokumentazio oparoena. Bi bloke handi dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) 1936 eta 1940 bitartean sortutako dokumentuak (Bilbo, Bartzelona eta Paris). 2) Parisen 1944-1978. urteetan sortutako dokumentazioa. 	<p>Gutunak, batez ere. Komunikatu, informazio-espeditante eta txosten asko. Bai eta agiriak (batez ere Parisko dokumentuen artean), egunkarietako artikulak, baimenak, buletinak, ziurtagiriak, zirkularrak, komunikatuak, hitzaldiak, deialdiak, koadernoak, kontuak, adierazpenak, dekretuak, diskurtsoak, akreditazio-dokumentuak, dosierak, idatziak, estatutuak, espeditenteak, argazkiak, propaganda-oriak, instantziak, liburuak, kontu-liburuak, sinadura-liburuak, manifestuak, oharrak, prentsa-oharrak, aginduak, musika-partiturak, planoak, ponentziak, prentsa, aurrekontuak eta telegramak.</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
	<p>1936-1940 (Bilbo, Bartzelona, París)</p>	<p>Dokumentazio gehiena Julio Jauregirena da (Lehendakartzako idazkari nagusia). Bi bloke handi dira:</p> <p>1) Idazkaritza nagusiaren kudeaketa.</p> <p>a) Idazkaritzako eguneroko lanean sortutako dokumentazioa:</p> <p>—Jauregik Agirre lehendakariarekin eta bere idazkari partikulararekin (Pedro Basaldia) eta orokorriarekin (Anton Irala) izandako gutunak. —Exekutiboko beste kargu batzuekin izandako gutunak. —Euskadiko hainbat ordezkartzarekin edo Euzko Jaurlaritzako sailekin izandako harremana. —Udaretako nahiz probintzietako euskal administrazioekin izandako kontaktuak. —ELA zentral sindikalarekin izandako harremana. —Euskal egoerak Katalunian zeukan tokiari buruzko dokumentazioa. —Sai honen eta beste batzuen aurrekontua.</p> <p>b) Gobernuz kanpoko organismoekin eta euskal institutuekin izandako harremanari buruzko dokumentazioa.</p> <p>c) Propagandari buruzko dokumentazioa.</p> <p>2) Gerra-egoerari eta exilioari buruzko dokumentazioa:</p> <p>a) Gerrak iparraldean izandako bilakaerari buruzko informazioa, Santoñako Itunari buruzkoa, euskal gudarosteena eta beren eragiketa militarrena, euskal gobernuia Katalunian ezarri izanarena, gerrako hegazkinak eraikitzeko planoena, euskal atxilotze-lekuetan atxilotutako presoen zerrendak, presoen trukeak, presoei emandako arreta, heriotza-zigordunen eta fusilatuen erregistroak...</p> <p>b) Itsasontzien ebakuazioari buruzko dokumentazioa, ebakuatutako umeei eta errefuxiatuei buruzkoa, ospitaleen gainekoa (batez ere, La Roseraie), zauritu edota mutilatutako euskal soldaduei emandako zaintzari buruzkoa, kontzentrazio-esparruei buruzkoa, haurren udalekuei buruzkoa, JARErekin izandako harremanari buruzkoa...</p>	

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
	1944-1978 (Paris)	<p>Saileko idazkaritza nagusien kudeaketa-lana Agirrerren agintaldian (1944. urtetik bere heriotza arte, 1960 arte) eta Leizaolaren agintaldian:</p> <p>a) Idazkaritza eguneroko lanetan sortutako agiriak.</p> <p>b) Euzko Jauriritzak beste erakunde batzuekin izandako harremanak (exekutiboaren atalak, kontseilu aholku-emalleak, Europan nahiz Amerikan Euzko Jauriritzak zituen ordezkariak, Errepublikak...), Europako beste erakundeekin zeuzkan harremanak (Europar Mugimendua, mugimendu federalistak, Europako Kontseilua, Mouvement Republicain Populaire, Nouvelles Equipes Internationales (NEI), (OIR-OIRO), eta alderdi politiko eta sindikatuekin zituen harremanak.</p>	
Azpiatala: Emigrazioa	1937-1940	<p>Euzko Jauriritzako Emigrazioko Ordezkaritzaren kudeaketa:</p> <p>a) Julio Jauregiren gutunak —ordezkaritzaren titularrak eta EAJko ordezkari CNAEn (Comité Nacional de Ayuda a España) eta SEREn (Servicio de Emigración de Republicanos Españoles)—, agintari eta kargudun politikoekin eta euskal errefuxiatuekin, Hegoamerikako herrialdeetara emigratzeko dirulaguntzen eskariei buruz.</p> <p>b) Miguel Jose Garmendia ordezkari zko titularraren gutunak; hainbat pertsona eta erakunderekin izan zituen, euskal errefuxiatuak herrialde amerikarretara eta Filipinetara joan ahal izateko bidaia antolatzekeo laguntza eske...</p>	<p>Gutunak, batez ere.</p> <p>Halaber, Frantziaren erbeste-erreturako espainiarrei buruzko estatistikak, gizarte-laguntzetarako instantziak, emigranteei idatzitako eskutitzak, itsasontzietan joandako euskal errefuxiatuen zerrendak, kontzentrazio-esparruetako euskal presoaren egoerari buruzko txostenak eta abar.</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Azpiatala: Ordezkaritzak	1936-1979	<p>Dokumentazio honetako azpiatal bakoitza ordezkaritza bakoitzari dagokio:</p> <ul style="list-style-type: none"> —Anberes (1938-1938) —Bartzelona (1937-1937) —Baiona (1937-1979) —Brusela (1937-1938) —Burdeos (1937-1939) —Londres (1937-1962) —Paris (1937-1977) —Perpignan eta Oloron (1938-1940) —Mexiko (1942-1954) <p>Dokumentuei erreparatuta, Lehendakaritza Saileko ataliek oparoenetakoa da hau ere.</p> <p>Baiona eta Londresko ordezkaritzek dute dokumentazio gehien.</p>	<p>Gutunak, batez ere.</p> <p>Kontuak eta ordainagiriak asko.</p> <p>Bai eta agiriak, prentsa-artikuluak, erroldak, ziurtagiriak, komunikazioak, kontratuak, adierazpenak, akreditazio-dokumentuak, dosierak, estatutuak, fitxak, informeak, instantziak, erregistro-liburuak, zerrendak...</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Baionako Ordezkaritza	1937-1979	<p>Dokumentuak kudeaketari buruzkoak dira, eta, batez ere, eskutitzak: Eliodoro de la Torre sailburuak, Javier Gortazar ordezkariak, Jose Manuel Oruezabala ordezkariordeak eta Juan Manuel Epaltza idazkariak hainbat lagun eta erakunderekin trukaturako eskutitzak.</p> <p>a) Emigrazioarekin lotutako kontuak (euskal errefuxiatuen zerrendak, alde egindakoentzako eta errefuxiatuakoenentzako laguntzak, SESbera erbestertutako eta ebakuatutako euskal haurren kokalekuak, baporetan ebakuatutakoek beren familiei bidalitako eskutitzak, errefuxiatu politikoaren estatusa lortzeko ziurtagiriak, emigratzeko dokumentuen izapideak, errefuxiatuen joan-etorriak, errefuxiatuen erroldak...).</p> <p>b) Baionako Ordezkaritzako kudeaketa (gastuak, aurrekontuak, balantzeak, propaganda-lana) eta beste ordezkartzeakiko, Espainiako zenbait alderdi politikorekiko eta hainbat enbaxadarekiko harremanei buruzkoak.</p> <p>c) Bigarren Mundu Gerrako hainbat egintza (Euskal Brigada, Pointe de Grave-rijotako erasoak, okupatutako Frantziatik ebakuatzea, erbesteratuen nondik norakoak, bidalitako baporeak, kontzentrazio-esparruak...).</p> <p>d) Hainbat erakunderekin izandako harremanei buruzko dokumentuak: Aholkularitzarako Frantziako Euskal Kontseilua, Gerran Elbarritutako Euskal erbesteratuen Frantziako Elkarteak, Comisión Distribuidora de la Ayuda a Venezuela para los Patriotas Vascos Refugiados en Francia izeneko elkarteak, Alianza Juvenil Vasca, Euskal Penn Kluba, <i>Euzko Gogoa</i> aldizkaria eta EKA (Euskal Kulturaren Alde) elkarteak.</p>	

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Londresko Ordezkaritza	1937-1962	<p>Ordezkaritzaren eguneroko lana. Jose Ignacio Lizaso, Manuel Irujo, Ángel Gondra, eta Jesus Hickman jaunen jabetzako dokumentazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Errefuxiatu eta presoentzako laguntza. b) Britainia Handiko zenbait erakunde eta agintarirekin izandako harremanak, besteak beste, Foreign Office delakoarekin. c) Euzko Jaurilaritzako sailekin eta Errepublikak espainiarrekin izandako harremanak. d) Home Office, Euzko Etxea, Euzko Emakumiak elkarteari edo Mid Atlantic esaten zitzaion elkarteari buruzko informazioa. 	
Parisko Ordezkaritza	1937-1977	<p>Rafael Pikabea Etxeberria ordezkariaren gutunak.</p> <p>Ordezkaritza guztietan agertzen dira kontzentrazio-esparruei, euskal erbesteratuei eta errefuxiatuei buruzko edukiak.</p>	
Burdeoseko ordezkaritza	1937-1939	<p>Nagusiki, Juan Zubiaga Aldekoa idazkariaren gutunak.</p>	
<p>Azpiatala:</p> <p>Jesus Maria Leizaola Euzko Jaurilaritzako lehendakaria</p>	1941-1979	<p>Gobernuaren kudeaketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) EBBrekiko harremanak, Espainiako Errepublikarekikoak, eta zenbait propaganda-organoren hainbat kontu (Euzko Deya, OPE eta Egi Billa). b) Nazioarteko harremanak, hainbat elkarte eta erakunderekin izandakoak: Association pour l'étude des problèmes de l'Europe, Sindicato askeen Nazioarteko Konfederazioa, Kultura Askatasunaren Blitzarra, Consejo Federal Español del Movimiento Europeo, Zuzenbide pribatua bateratzeko Nazioarteko Institutua, Mouvement Republicain Populaire, Europako Mugimendua, NEIak, EB eta Spanish Consultations. 	

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Azpiatala: Joseba Rezola, Euzko Jaurilitzako lehendakariordea	1963-1966	Batez ere, Demokrata Kristauen Nazioarteko Elkarteko (NEiren izendapen berria 1965az gero) bilera eta kongresuei buruzko dokumentazioa.	
Azpiatala: Trukeen bulegoa	1938	Presoen fitxak eta 1938. izapidetutako trukeei buruzko espedienteak.	
Azpiatala: Gerran Elbarritutako en egotza	1936-1940	Juan Jose Basterraren (Euzko Jaurilitzaren Gerran Elbarritutako en Egoitzen zuzendaria) gutunak, eta bere funts bibliografiko eta hemerografiko partikularrak.	
Azpiatala: Euzko Deya	1937-1940	Kazetaritzako artikulua, buletinak, liburuxkak, gutunak..., guztiak ere laguntzaileek bidalitakoak edo egunkariaren zuzendaritzak Parisen platuritakoak.	
Azpiatala: Sailarteko ponentzia	1939-1940	Gonzalo Nardiz jaunak idazkari lanetan sortutako gutunak, eta organismo horiek izapidetutako dokumentuak, laguntza ekonomikoak emateko eta erbesteratutako langabeei lana aurkitzeko.	
Azpiatala: Zerbitzu bereziak	1937-1940	Zerbitzu bereziak alde nazionalen ekintzei buruz eta alde errebeldeko ekintza erlijiosoei buruz egindako txostenak, eta 1937-1940 bitartean Lehendakariitzako Informazio Zerbitzuak egindako txostenak.	
Azpiatala: Euskal Mundu Biltzarra	1956-1957	Kongresuari buruzko dokumentazioa.	

2. BESTE SAILAK

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Defentsa Saila	1936-1939	<p>Gerra Zibilean sortutako dokumentuak.</p> <p>Euskal Herriko Gerra Zibilari buruz gehiago jakiteko oinarriko funtsa. Sail honek zituen atalen arabera banatuta dago: Hegazkintza, Kartografia, Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia, Euzko Gudarostea, Gotorlekuek, Industria mobilizatuak, Informazio orokorra, Intendentzia Militarra, Gerra Ontzidia, Gerra Pentsoiak, Errekrutatzea eta Mobilizatzea, Osasun Militarra eta Gerra Garraioak.</p> <p>Bost multzo:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1) Euzko Gudarosteari buruzko dokumentuak: batailoiak eta atxikitako brigadak, bouetako tripulazioa, gudariak, buruzagien zerrendak, ofizialak, ofizialordeak eta soldaduak, osasun-langileak, gudarosteko kargudunen izendapenak, Euzkadiko Epaitegi Militarra... 2) Azpiegitura militarrei eta intendentzia-lanei buruzko dokumentuak: Ertzaintza Polizia Militarra, Itsas Armada, Euzkadiko Eskola Militarra, Informazio Radiotelegrafikoaren eta Radiotelefonoaren Lehendakaritzako Zerbitzua, armamentua, parkeak, gotortze-lanak, aterpeak, munizioak, armak eta soldaduak garraiatzea. 3) Gerraren nondik norakoei buruzko dokumentuak: operazio militarren antolaketa eta gauzatzea, Euzkadik Katalunian zuen Gobernu Ordezkaritzako Defentsa Sailaren dokumentuak, agente frankistek Frantzian egindako espioitza-jardueri buruzko txostenak... 4) Agintarien antolaketa eta eabzpenak: Espainiako iparraldeko Armadaren Estatu Nagusiko aginduak eta operazioak, buruzagi militar eta politikoen bilerak, Bizkaiko Defentsa Batzordearen bilerak, Joseba Rezolaren eta Juan Jose Basterraren (Defentsa Saileko idazkari nagusi izandakoan) eskutitzak, sail horrek Gerra eta Gobernazio ministerioekin izandako komunikazioak, Armadaren atalen arteko komunikazioak. 5) Eragindako herritarrei buruzko dokumentuak: heriotzaz zigortutakoan, presoan eta okupatutako lurraldean zeuden emakume eta haurren zerrendak, biztanleria zibilaen ebakuazioa, euskal errefuxiatuek familiari idatzitako eskutitzak, gerra-pentsioak... 	<p>Batez ere, txostenak, zerrendak eta komunikazioak.</p> <p>Halaber, bilera-agiriak, agendak, baimenak, eskutitzak, kontuak, dekretuak, akreditazio-dokumentuak, txostenak, argazkiak, erregistro-liburuak, mapak, aginduak, gerra-txostenak, proiektu teknikoak, telegramak...</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Gizarte Laguntza Saila	1936-1940 1944-1963 (Gizarte Segurantzako espedienteak)	Sailaren egunerokoan sortutako dokumentuak, eta Juan Graciak, Gizarte Laguntzako sailburuak, gobernuko beste kargudunekin eta errefuxiatuei laguntzeko erakundeekin izandako posta-trukea. Dokumentuak gai hauei buruzkoak dira: errefuxiatuen ebakuzioa eta emandako laguntza, errefuxiatuen tokialdaketa eta kokalekua, elbarrien harrera, subsidiarioak ematea, La Roseale eta Dax-eko egoitzak, kontzentrazio-esparruak, euskal haurren Ingalaterrako egonaldia, gerra-presoen fitxak eta trukeak, SEREKiko erlazioak...	Gutunak, zirkularrak, komunikazioak, kontuak, adierazpenak, estatistikak, espedienteak, fitxak, argazkiak, txostenak, instantziak, inbentarioak, erregistro-liburuak, zerrendak, aginduak, planoak, aurrekontuak, araudiak, epaiak...

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Ogasun Saila	1936-1979 ¹	<p>Atalak: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Ordezkaritzak, Baloreak, Kontabilitatea.</p> <p>a) Idazkaritza Nagusiak du dokumentu gehien. Honako azpiatal hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> —Ogasuneko Idazkaritza Nagusia (Anberes, 1936-1937) —Elodoro de la Torre (1937-1945) —Angel Perez de Anuzita (1937-1940) —Lucio de Aretxabaleta (1937-1940) —Jose de Aretxabaleta (1939-1940) <p>Batez ere, saileko ordezkarri eta idazkariak idatzitako gutunak eta eguneroko lanean egindako idatziak.</p> <p>Euzko Jauritaritzaren eta bere sail eta ordezkaritzen kontabilitateari buruzko dokumentuak.</p> <p>b) Ordezkaritzak atala: Baionako Ordezkaritzaren gutunak eta kontuak, eta Ildefonso de Iralaren gutunak.</p> <p>c) Baloreak atala: baloreak ebakuatzeagatik Frantzian sortutako auziei buruzko informazioa, eta Frantziako auzitegiek (Rochelleko Auzitegiak, Middelburg-eko Auzitegiak, Céret-eko Auzitegiak) baloreok bahitzeari buruzko informazioa.</p>	<p>Batez ere, gutunak, espedienteak eta kontuak.</p> <p>Halaber, bilera-agiriak, kazetaritza-artikuluak, aholkularitza, balantzeak, zirkularrak, komunikazioak, kontuak, adierazpenak, dekretuak, ekonomia-dokumentuak, notario-dokumentuak, informazio-espedienteak, fakturak, fitxak, argazkiak, ziurtagiriak, erregistro-liburuak, zerrendak, memoriak, oharrak, jakinarazpenak, nominak, agindua, aurrekontuak, ordainagiriak, araudiak eta telegramak.</p>

1 Sail batzuetako agiriak —Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Ordezkaritzak, Baloreak— 1936tik eta 1947ra bitartean tramitatutakoak dira. Kontabilitatea sailekoak, berriz, 1953ra bitartekoak dira, eta Agustín Alborren agiriak 1940 eta 1979 artekoak.

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Merkataritza eta Hornikuntza Saila	1937-1938	<p>Batez ere, Ramon Maria Aldasorok, Merkataritza eta Hornikuntza sailburuak, 1937 eta 1938 bitartean egindako kudeaketa.</p> <p>Lau atal: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Espainiako Iparraldeko Merkataritza eta Hornikuntza Zuzendaritza Nagusia, eta Likidoen eta Erosketen Zuzendaritza Nagusia.</p> <p>Euskal presoei eta erbesteratuei buruzko dokumentuak (ziurtagirien tramitazioa, presoen zerrendak...) eta, batez ere, Gerra Zibilaren garaiko hornidurak eta janaria inportatzeari eta erosteari buruzkoak.</p>	<p>Batez ere, gutunak eta ziurtagiriak. Halaber, txostenak, aurrekontuak, produktu-zerrendak eta fakturak.</p> <p>Askozaz dokumentu gutxiago daude.</p>
Industria, Marina eta Arrantza Saila	1936-1940	<p>Lau atal: Idazkaritza Partikularra, Idazkaritza Nagusia, Aholkularitza Juridikoa eta Ogasuneko Kontuhartzailtza.</p> <p>a) Sailak berak eta haren hiru unitateek —Industria Zuzendaritza Nagusiak, Merkataritza Ontzidireko Zuzendaritza Nagusiak eta Arrantza Zuzendaritza Nagusiak— tramitatutako idatziak.</p> <p>b) Santiago Aznar sailburuaren eta Jose Goni saileko idazkari nagusiaren gutunak, eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko informazioa.</p>	<p>Batez ere, espedienteak eta txostenak. Halaber, ziurtagiriak, zirkularrak, komunikazioak, gutunak, kontuak, dekretuak, informazio-txostenak, fakturak, instantziak, liburuak, zerrendak, nominak, aginduak, aurrekontuak, araudiak.</p>

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Gobernazio Saila	1936-1953	<p>Gobernazio sailburu izan ziren Telesforo Monzonek (1936-1940) eta Jose Maria Lasartek (1942-1953) sortutako agiriak.</p> <p>Saileko egunerokoa sortutako agiriak: sailburuek hainbat lagunekin eta erakunderekin izandako posta-trukea, sailak bidalitako komunikazioak, pasaporteen eskaerak, atxikitako pertsonen eta presoen trukeei buruzko informazioa, gerrarengatiko kalte-ordainak, erbesteratutako funtzionarioak....</p> <p>a) Telesforo Monzoni dagokion atalean honako agiri hauek daude: Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak eta Segurtasuneko Idazkaritza Nagusiak Ertzaintzari eta Polizia Motorizatuari buruz egindako artxiboak.</p> <p>b) Lasarteri dagokion atalean: azpimarratzekoak dira OPEri buruzko artxiboak (berak sortutako informazio-aldizkaria) eta Consejo Federal Español del Movimiento Europeo erakundeari buruzkoak, haren idazkari izan baitzen.</p>	Gutunak, katalogoak, komunikazioak, kontuak, adierazpenak, egiaztagirak, informazio-espedienteak, argazkiak, txostenak, instantziak, zerrendak, araudiak.
Kultura Saila	1933-1940	<p>Dokumentu-funts txikia.</p> <p>Oinarizko Irakaskuntzako Zuzendaritza Nagusiaren espedienteak, 1933 eta 1937 artekoak, eta Jesus Maria Leizaola Justizia eta Kulturako sailburu zenean sortutako dokumentuak (1937-1940).</p>	Gutunak, posta-trukea, espedienteak, txostenak, instantziak, akta-liburuak eta aurrekontuak.
Nekazaritza Saila	1936-1939	<p>Dokumentu-funts txikia.</p> <p>Gonzalo Nardiz sailburuaren gutunak baserri-inguruko babeslekuiei, Venezuelara izandako emigrazioari eta errefuxiatuentzako subsidiorei buruz.</p>	Gutunak, batez ere. Halaber, kazetaritza-artikuluak, inprimakiak eta txostenak.

FUNTSA/ATALA	MUTURREKO DATAK	EDUKIA	DOKUMENTU MOTAK
Justizia Saila	1936-1940	<p>Dokumentu-funts txikia.</p> <p>Jesus Maria Leizaola titularrak Euzko Jauriaritzako hainbat kargurekin, beste hainbat lagun eta agintarirekin eta bestelako erakundeekin izandako posta-trukea. Alpatzekoa da Dominikar Errepublikako euskal emigranteen bizimodua erregulatzeko proiektua.</p>	Gutunak, komunikazioak, espedienteak, txostenak eta prentsa.
Osasun Saila	1937-1940	<p>Dokumentu-funts txikia.</p> <p>Atalak: Idazkaritza, Ospitaleak, Erietxeak eta klinikak.</p> <p>Osasun Sailaren kudeaketa.</p>	Mediku-espedienteak, urmeenak batez ere.
Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio Saila	1936-1938	<p>Dokumentu-funts txikia.</p> <p>Atalak: Idazkaritza, Komunikazio eta Antolaketako Zuzendaritza Nagusia</p> <p>Lan, Aurreikuspen eta Komunikazio Sailaren kudeaketa.</p>	Gutunak, batez ere. Halaber, espedienteak, fakturak, ordainketa-aginduak eta nominak.

